



ARGIA

HIRI BARATZEAK AMETSAK EREIN HARREMANAK JASO



» JUSTO ARRIOLA: "GUARDIA ZIBILAREN AUTO KAMUFLATUEK HEROINA BANATZEN ZUTEN"

» URI RUIZ BIKENDI: "BAKOITZA BERE HEZIKETAZ BAKARRIK ARDURATU DADILA DA KONTSIGNA"

» KOLDO ZUAZO: "ARABAK EGITEN ZUEN EUSKALKIEN LOTURA"



Datorren astean



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Hor dena gailu
- 10 Net Hurbil:
Boterea historian zehar

IRITZIAK

- 17 Asier Blas
- 18 Aingeru Epaltza
- 19 Iñaki Martínez de Luna
Leire Narbaiza Arizmendi
- 20 Irati Elorrieta



Euskal Herrian heroina-trafikoak eta botereak izandako harremana aztertu du Justo Arriolak 'A los pies del caballo' liburuan. (ARGAZKIA: IKER BARANDIARAN)

- 37 DENBORAREN MAKINA
- 38 ARGIA KOMUNITATEA
- 40 BIZI BARATZEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
XANE KRECKELBERGH
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: JOSEBA ZABALZA

SAKONEAN

- 12 | Uri Ruiz Bikandi: "Eskolako ateak itxi eta umeak sailkatzeko joera klasista dago" / Miel A. Elustondo
- 22 | Iruñerriko errailetatik datoz herri baratzeak / Xabier Letona
- 27 | Hauteskundeak: Macronen En Marche garaile, abstentzionisten begiradapean / Mikel Asurmendi
- 28 | Justo Arriola: "Erantzukizun politiko eta poliziala argitu behar da; ez zuten heroina-trafikoak gelditu nahi" / Iker Barandiaran
- 30 | Gazterai: "Prekarietateari aurre egiteko, arazo indibidualak kolektibo bilakatu behar ditugu" / Ane Eslava Serrano
- 32 | Koldo Zuazo: "Hainbeste berbeta egoteak esan nahi du herri hau ez dela kohesionatuta egon" / Dabi Piedra
- 34 | Mexikoko Maseual herria: Kooperatibak lurraldearen defentsarako lanabes / Ane Urkola
- 42 | Arte eszenikoak: Baratza espazioa, zurrunbiloa eta aterpea / Ion Olano Carlos
- 45 | Arte iruzkina: Naia del Castillo / Xabier Gantzarain
- 47 | Raimonen azken kontzertuak: Hainbeste oihu (eta murmurioen bat) / Aritz Galarraga

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaitza Taldeko partaidea.

Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estibitz Eizagirre.

Erredakzioa: Aier Lopez, Estibitz Eizagirre, Gorka Bereziartua, Itsaso Zubiria, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel García, Onintza Irueta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Xalba Ramirez.

Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco. **Produktzioa:** Antza S.A.L.

Harpidetza: Iratitz Agirre. **Administrazioa:** Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde, Marijo Aiertza.

Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Sorraluze, Bego Zuza. **Web garapena:** Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industriadale, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.

Lapurd, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.

Interneten: www.argia.eus.

Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.

Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

ARGIA KIDETZA:

Kidetza harpidetzari lotuta egon beharrean, ARGIA komunikazio proiektua indartzera dago lotuta. Partikular eta kolektiboek, ahal duten eta egokitzat duten ekarpen ekonomikoak egin, ARGIA argitaratzen dituen kazetaritza lanak (aldizkaria, Larrun, Aktualitatearen Gakoak) jasotzeko aukera izango dute. Batez beste, ARGIA Jendeak 12,50 € jartzen ditu hilean proiektua indartzeko.

Erakunde publikoen kasuan, ohiko sistemari eusten diogu. Harpidetza tarifak: ARGIA astero (150 € urtean), ARGIA hamabostean behin (80 € urtean) eta ARGIA hilean behin (42 € urtean).

PANORAMA

Komantxeen lurraldea

UPNko gobernuaren proiektua zena orain Geroa Baiokak egin du bere: Lekarozen luxuzko hotela, golf zelaia eta 228 etxebizitza egitea. Geroa Baiok eledun Koldo Martinezek, Aroztegiako proiektuak euskaraz izanen duen eraginaz galdetuta, erreserba hitza aipatu zuen. Ez zekien laguntzen ari zela mugimendu berri bat sortzen. Aroztegiako komantxeek deituta, asteburuan Elizondoko plaza okupatu dute 50 gaztek. Baztan errotik aldatuko lukeen proiektuak eskualdean duen aurkakotasuna irudikatu nahi izan dute, umorea galdu gabe.

Argazkia: Irantzu Pastor · Testua: Axier Lopez

ARROZTEGIA
GELDITU

UPN
IRPEGI BERTINE!!

ROA BAI
QUA NAH



Kontzertua ematetik etxera bidean, gizon batek Zuriñe Hidalgo kantaria jarraitu eta hitzez eraso zuen.



“Gertatu zitzaidana emakumeoi egunerokoan gertatzen zaigun errealitatea da, eta benetan... nazkatuta gaude! Atzo ez nuen nire burua ausartzat hartu, ez... guztiz kontrakoa, ez nekien non sartu, beldurtuta nengoen. Baina kontua da, kalean ez dugula ausartak izan nahi, libre izan nahi dugu!”

Zuriñe Hidalgo



“Beldurra emakumeen aldetik erasotzaileen aldera pasatzeko ordua da, senti dezatela beraiek beldurra beraien aurka gaudelako! Besarkada bat Zuriñe”

Mikela Etxebeste



“Egoera lotsagarri hau normaltasunetik kentzeko borroka feminista da bide egokia, aupa zuek feministak”

Andoni Oilokiegi



ELA

Kanpaldia egin dute Bizkaiko zahar-etxeetako langileek

Itsaso Zubiria Etxeberria

@itsasozubiria

Gizarte zerbitzuetan lan duina eskatzeko egin dute hiru eguneko kanpaldia zahar-etxeetako langileek, Arriaga antzokiaren alboan jarritako karpan. “Kanpaldia aprobetxatu nahi dugu eskatzeko Bizkaiko Foru Aldundiari eta sektoreko patronalei gure eskariei erantzuteko, plantillak handituz, lan-kargak gutxituz eta lan-baldintzak hobetuz. Lan-baldintzak oraintxe bertan hobetu behar dira, langileei eta erabiltzaileei bizi-kalitate duina bermatzeko”, adierazi du ELA sindikatuak. Hamabost hilabete daramatzate langileek greban, eta dagoeneko 200dik gora lanuzte egin dituzte. Oraingoan aldarrikapena

kalera atera eta herritarrei beren gatazkaren berri emateko baliatu dute kanpaldia. 1.200 euroko soldata, asteko 35 orduko lanaldia eta igandeko plusa igotzea dira, besteak beste, grebalarien eskakizunak, Ainhoa Menendez grebalarien ordezkariak adierazi duenez.

Babes ugari

Gizarte eragile eta norbanako bat baino gehiago gerturatu dira Arriagara asteburuan babesa ematera. Bertan izan dira Irantzu Varela eta Josebe Iturriotz militante feministak, Babestu zahar-etxeetako erabiltzaileen senideen elkarteko kideak, ordezkari politikoak... Eta ekitaldietan parte hartu dute Bernardo Atxagak, Garik, Puro Luegok edo Las Kapritxosas clown taldeak.

“Giza eskubideen legeak aldatuko ditut terrorismoa borrokatzeko beharrezkoa bada”

THERESA MAY, BRITAINIA HANDIKO LEHEN MINISTROA

Londresko atentatuen ostean, legeak gogortzea proposatu du Mayk: “Terrorismoagatik susmagarriak direnen askatasun eta mugimenduak oztopatzeko gehiago egin behar da. Eta giza eskubideen gure legeek galarazten badigute, legeak aldatuko ditugu egin ahal izateko”. Terrorismoagatik susmagarriak diren kanpotarrak errazago deportatzeko neurriak proposatuko ditu, baita epaitegietara jotzeko proba nahikorik eduki gabe, mehatxua direla jakitearekin soilik, neurriak hartzea. **2017-06-06**



Duela 40 urte zer adin zuen Aranburuk?



Iñaki Gimeñez < España Grande > ediciones de la Torre

itzulpen gaurkotua:

- abertzaleek hatsa ematen digute gure instituzio guztietan; esker mila gure partido agonikoak salbatzeagatik...
- ortuzarrek diskurtso argigarria; haatik barkosek brodatu egin du: <monarkia parlamentarioa oinarri duen estatu baten erakunde bateko kidea naiz>



EKAITZ ZILARMENDI

Herritarren ituna, dohainak eta arazoak

Xabier Letona

@xletona

Nazio politikoaren ideiak urrats bat gehiago eman du Gure Esku Dagok proposatutako herritarren itunarekin. Nazio politikoa, horra koska. Horregatik ez du Espainiako Konstituzioak Espainiako nazioa besterik onartzen, gainerakoak "nazionalitateak" dira edo gehienez nazio kulturalak.

Kataluniako Estatut berrian ere Auzitegi Konstituzionalak ondo baino hobeto orraztu zuen Kataluniaren nazio kontzeptua. Haren emaitza da urriaren 1ean Katalunian egingo den autodeterminazio erreferenduma. Bai, erabaki eskubidea da autodeterminazio eskubidearen esapide modernoa, baina hau ez dago oraindik inon jasoa eta autodeterminazio eskubidea Nazio Batuen Erakundeak berak onartzen du, nahiz eta XX. mendeko bigarren erdialdeko deskolonizazio prozesuetarako egin zen.

Euskal gatazkak azken mende erdia pasatu du nazio politikoan enrokatur, bere adar bortitz eta mingarriaz jantzita gainera. Gatazka horri ikuspegi demokratikotik heldu nahian ari da Gure Esku Dago, lorpen garrantzitsuekin gainera, herrietako kontsulten parte-hartzeek erakutsi duten gisan. Baina ETarik gabe dena posible eta egingarri zela zioen herri abertzaleak orain ez du mobilizatu

nahi: izan liteke ahitua dagoela; edo hala eroso dagoela; edo inork ez duela behar bezala motibatu; edo, besterik gabe, nazioaren aldeko beste borroka esparru batzuk beharrezkoagoak jotzen direla.

Nazio gatazkaren alde alaia bideratzen ari da Gure Esku Dago azken lau urteetan, edozein nazio eraiki eta egituratzeko behar den kohesio eta kontsentsu esparruak jorratuz. Norbaitek egin behar duen lana da, jakina, baina gatazkaren muina latza da, bi legimitateren konfrontazioa dagoelako tartean, eta borroka hori Estatuaren indarrean –legea deitzen duten hori– oinarritzen delako eta ez lehia demokratikoan.

Gure Esku Dago jorratu nahi duen herri kontsentsu horrek badu beste arazo handi bat gaur egun, munduko hamaika bazterretan ematen diren gatazkez josia dagoela gurea ere: hor dira EAJk eta bere aliatu instituzionalek (PPk eta PSOEk) ordezkatzen duten bultzada neoliberalak eta hauen aurka ari diren herri sektoreen arteko konfrontazio sozial eta ekonomikoa: langile eta enpresarien artean ematen dena, Bizkaiko zahar egoitzetako borroka luzea, fiskalitatea, desarrollismoaren politiken ondorioz datozen arazoak, AHT, Zubietako erraus-tegia, Aroztégia, Errekaleor, Tosu... Nola sinetsi aliantzetan, eguneroko praxiak sektore hauek aurrez aurre jartzen dituenean? Erantzuna ez da samurra, baina itunaren garapenak emango ditu pista gehiago.

EKONOMIAREN TALAIAN

Popular bankuaren erantzukizunak



Juan Mari Arregi

Popular bankuaren hondoratzea egunotako gertakari ekonomiko nagusi izan da Espainiako Estatuan. Banku "errentagarriena" omen zena –Hego Euskal Herrian ere presentzia handia zuen– euro batengatik erosi du Santanderrek. Adreiluaren krisiak milaka kiebra sorrarazi ditu, eta orain Popular bankuarena etorri da, aktibo toxikoetan 40.000 milioi euro baitzuten. Kaltetuak akziodunak eta bonoen jabeak dira, euren inbertsioa erabat galdu baitute. Gordailugileek euren aurrezkiak bermatuta dituzte, hainbat mugarekin. Eta zalantza dago zer gertatuko den bere 12.000 langileekin, enplegu murrizketa eta erregulazio espedienteen biktima izango dira baina.

Horrek guztiak baditu erantzule batzuk orde, eta egindakoa ezin zaie debalde atera. Lehenengo erantzuleak politikariak dira, banku erakundeak zaindu eta kontrolatzeaz arduratzen diren horiek: Espainiako Bankua, Balore Merkaturen Batzorde Nazionala, Espainiako Ekonomia ministerioa, Europako Banku Zentrala... Popular bankua fidatzekoa zela zioten denek. Bankuaren presidentziak eta administrazio kontseiluko kideek ere badute konturik argitzeko, egoera den bezalakoa izanda ere, pentsio milioiunak poltsikoratu baitituzte.

Espainiako Gobernuak dio operazioa ez zaiola euro bat ere kostako zergadunari. Gauza bera esan zuen bankuen erreskatearekin eta gezur horren ondorioz 60.000 milioi euro atera behar izan zituzten diru-kutxa publikoetatik. Ez ote gaude beste gezur baten aurrean? Beste behin zergadunak ordainduko du gobernuen gestio txarra eta politika ekonomiko negargarria. Lotsa ematen du bankuko kideak, presidentea buru dutela, oraindik euren karguetan daudela ikusteak, ezer gertatu izan ez balitz bezala.



BALEIKE

Kolore guztiak debekuen kontra

ZUMAIA. Orain urtebete lehen murala margotu zuten Kalea Guztiona Da mugimenduko kideek Zumaian. Urteurrenaren harira, festa egin dute, *Kolore guztiak debekuen kontra!* lelopean. Zumaiaiko Udalak herriko kaleetan pankartak eta kartelak jartzeko debekua iragarri eta hilabetera sortu zen mugimendua. “Debeku eta isun hauek jasotzen dituen ordenantza onartzeko asmoa zuen Udalak eta pentsatuko zuen di-da batean onartuko zutela. Onartu ez bada izango da, ziur aski, erantzuna jaso dutelako”.

Nafarroako LGTBI+ legea, aurrera

Euskalerrria Irratia

@fm914

LGTBI+ berdintasun sozialerako lege proposamena eztabaidatu eta onartu dute Nafarroako Parlamentuan, Geroa Bai, EH Bildu, Ahal Dugu, Ezkerra eta PSNren ekinez. UPN abstenitu egin da eta PPK aurka bozkatu du.

Neurriak

LGTBIfobiari aurre egi-teko neurrien artean, protokoloak garatuko dira, sentsibilizazio eta prestakuntza kanpai-nak egin, eta behar izatekotan zigorrak jarri. Administrazioan eta Osasunbidean sexu identitateaz informazioa zabalduko da.

Despatologizazioa

Hezkuntzan, lanke-ta programak jarriko dituzte martxan. Ugal- ketaren arloan, LGTBI pertsona guztientzat eskuragarri izanen da ugalketa lagundua. Transexualitateari da- gokionez, despatologi- zazioaren aldeko urra- tsa eman du legeak.

Gorrote delituak

Espainiako Barne Sailak aurkeztutako Espainiako gorro- to delituei buruzko txostenaren arabe- ra, 31 gorrote delitu izan dira Nafarroan, horietatik gehienak (hamar) orientazio eta identitate sexuala- ri loturikoak.

GESTIO PUBLIKOA



1.475.000

euroko lana esleitu zuen Bilboko Udalak, lehiaketa publikorik gabe. Lehiaren Euskal Agintaritzak arrazoi- a eman dio EH Bilduri 2014an Bilboko Udalari jarritako salaketaren harira.

2012

urtean egin zuen hitzarmena Bilboko Udalak, Metropoli Fundazioarekin, Auzo Bihotzak proiektuaren diseinu-lana egiteko.



ERREFERENDUMA HEGO KURDISTANEN

Hego Kurdistanek independentzia erreferenduma egingo du irailaren 25ean, bertako alderdi politiko gehienek adostuta. Iraken menpe dagoen Hego Kurdistanek urteak daramatza estatu konfederal izatetik estatu independente izateko ahaleginetan.



LEHEN ALDIZ ARABAR BAT TXAPELDUN

Aroa Arrizubieta (Gasteiz, 2001) nagusitu da Euskal Herriko Eskolarteko 34. Berto Txapelketan. Joanes Illarregi leitzar- ra izan da txapel- dunorde. 200 lagun inguru hurbildu ziren finala jarrait- zera.



ESKOLA TXIKIAK

Arroan (Zestoa) egin da Eskola Txiki- en XXX. Festa. Eskola Txiki- ak bizirik daudela eta herri eta auzo txiki- ak bizirik mantentze- ko beharrezko dire- la adierazteaz gain, Arroan eraikin bateratu ber- ria “lehenbailehen” egiteko eskatu dute guraso- ek.

Akhenaton edo Trump, buruzagiak beti jakin du ahulenak nola erabili



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Erabat egia ez den arren historia ez dela errepikatzen, ez da gezurra ere *"Nihil novum sub sole"* (Deus berririk ez eguzkipean) esaera zaharra. Giza komunitateetan beti daude bakan batzuk nola edo hala besteei agindu nahi dietenak, botere irrika asetzeko gai direnak erabiltzeko jainkoak, ideiak, hierarkiak, beldurak eta gorrotoak. Krisiaren izaera ekonomiko eta energiazkoarekin batera buruzagi, nagusi eta tiranoen ezaugarriei erreparatzea komeni da. Arrastoa jarrai dakieke historian barrena.

Asko dira oraindik irentsi ezin dutenak Donald Trump bezalako gizon xeblebre batek lortu izana munduko inperio nagusiaren lehendakaritza bereganatzea. Pailazoa, astakirtena, munstroa... "Hala ere, geroztik ohartu gara kanpaina burutsua egin duela, hanka sartzeak ere ondo kalkulatu eginez. Demagogoa, jende ikusezin, baztertu eta desklasatuen buruzagi bilakatu nahi izan du elite agintariaren kontra. Egin duen bideak oroitarazten ditu antzinako tirano greziarrak, Atenasko Pisistrates esaterako, gai zirenak herri xehearen haserre erabiliz agintearen jabe egiteko".

Hitzok AEBetako hauteskundearen biharamunean idatzita daude "Donald Trump, bere orrazkera bitxia eta David erregea" artikuluan. Egilea, Christian-Georges Schwentzel historiagilea, berrikitan plazaratu duena *La fabrique des chefs*, Buruzagien jitea, estiloa. Antzinako Grezia eta Ekialde Hurbileko historian berezitua, Akhenatonengandik Donald Trumpenganaino pasatu diren agintari ugari erkatu ditu liburuan.

Buruzagiak, *jefeak*, *xejak*, izan tri-buenak, estatuenak edo gerrarienenak. Jendarte guztietan botereak liluratzeko dituzten batzuk betidanik, historiaurrearen akaberatik, Mesopotamian bezala Egipton edo Grezian. XXI. mendean berriro agintari karismatikoen aroan sartu gara, Schwentzelen aburuz, II. Mundu Gerratik landa erregimen autoritarioak honoratzen ikusi ostean, faxismoa lehenik, geroago sistema sobietarra ere erori

zen, Latino Amerika gehienez diktadurak amaitu... Agintari boteretsuen itzultzea hasi zen Vladimir Putinekin 1999an. Gero ikusi dira guregandik hurbilago Victor Orban Hungarian, Erdogan da horien baliokidea Turkian.

Trumpen kasura etorrira, azken hamarkadetan AEBetako bizi politikoa elkarren artean banatu duten bi familia aristokratikoei egin die aurre. Lehenik Bushtarrei, errepublikanoen buruzagitzarako lehian Jeb Bush eliminatuz. Akaboa Bush III... eta agur Clinton II, Hillary bera klan politiko boteretsu bateko printzesa izaki.

Trump bera ere aristokrata da, esan nahi baita aberats handia, baina baztertutako aristokrata, duela 2.500 urte Grezian ugaritutako tiranoak ziren bezala (Atenasko Pisistrates, Korintoko Kipselo...). Denek herri xehearen egoenezina erabiliko dute oligarkiaren klan nagusiei gaina hartzeko. Herri xehea establismentaren aurkako argudioekin jokatzu erabiltzen Vladimir Putin izan da gure garaian lehen.

Jendearen beldurrarekin jokatzu, has-teko. Gizakia funtsean beldurtia da, dio Schwentzelek, eta beldur hori erabiliko dute Mesopotamiako lehenbiziko buruzagiek. Gosetearen beldur baita jendea, *xejak* bere burua ezartzen du populua-ren eta eguraldiaren, ondorioz uztaren eta janariaren, berme diren jainkoen arteko bitartekari. Zer besterik egin dute gaur Trump edo Putinek beren herriki-deen ikararekin? Beldurra esku batean,



propaganda bestean. "Ez da Machiavelli jaio arte itxaron beharrik makiabelismoa aurkitzeko jendarteetan".

Munduan behin eta berriro ikusi da hauteskunde araututako sistema bat autoritario edo monarkiko bihurtzen. Erroma errepublikarrak estatuaren buru bi gizon zeuzkan, bi kontsul urte beterako hautatuak, hori zen erregetzara ez itzultzeko bermea. Alabaina, kanpotiko mehatxuak irekiko dio bidea buruzagi indartsuak edukitzeko gogoari, Erromaren kasuan barbaroek eta piratek sortutako egonezinak.

Kristo Aurreko I. mendean Erromak eduki zuen gaur Turkia den eskualdean, orduan Ponto, Mitridates izeneko errege barbaroa, "garai hartako Bin Laden" dio ironiaz Schwentzelek, milaka erromatar masakratu zituen. Barbaroen presioa, piratak, Mitridates... azkenean Erromak ontzat eman zuen ordura arte politikoki zuzena ez zirudiena, berriro botere osoa uztea gizon bakar baten eskuetan: horra Julius Caesar.

Kalparraren mintzoa

Txiste asko egin zaio Trumpi bere ilaje itsusiagatik, hozkia ematen duen tupe horiztagatik. Baina elitea -jende xehe haserretu askorekin batera- gorrotatzen duela dioen enpresarioak urguiluz zaintzen du bere orrazkera demasa, goi-zero harrotuz sprayz, kasko urrekara bat balerama bezala. "Erakutsi nahi du inork ez bezalako kalparra daukala, berezia, marka pertsonala ematen diona,



Irudian, Donald Trump 2015eko abuztuan Greenvilleen (Hego Carolina) AEBetako lehendakari izateko kanpainan emandako mitin batean. Hitzaldia hasita berehala gezurtatu nahi izan zituen bere bilo horiak gezurrezkoak direla esanaz iseka egiten ziotenak 'The New York Times' bezalako egunkari handietatik, 'El hombre del peluquín' (sic) eta antzekoekin. Entzuleen arteko emakume bat igoarazi zuen publikoki frogatzera Trumpek ileak bereak dituela. Telebistako kazetariekin ere egin izan du eszena bera. Populu xeheari lasaitasun mezua zabaldu nahi zion: itsusia izan edo astakirtena izan daitekeela, bai, baina ez faltsua.

dotorezia bat, hautatua izatearen arrasto". Karikaturagileek jakingo ez duten arren, Biblian bada norbait kalpar harroak daramatzana Jainkoaren hautatu izatearen markatzat: David, errege-mesias bera inor izatekotan, Goliat mukurarazteko gai.

Trumpek orrazkera deigarria bihurtu du fetitxe. Hauteskunde kanpainako mitinetan behin eta berriro errepikatuko du erritua: entzuleetako bati eskatzen dio igo eta ukitzeko bere ileak, zertifikatzeko ez dela peluka bat. "Frogatu nahi du itsusia bai baina ez dela gezurtia, ez dela hipokrita: jendeak behar zuen gizon probidentziazkoa dela. Haren ilajea autentikoa da, bere hitzak bezala eta Amerikanoei promes egiten die: handitasuna itzuliko diela, urguilua, *Make America Great Again* (AEBak berriro handi egin) esloganak dioen bezala.

"Mundua hondoratzen ari denean, jendeek lider indartsu bat eduki nahi dute, Amerika babesteko gai izango dena" esana du. Trebezia handiz erabili du AEBetako jende gehienek barneratua daramaten kultura judeo-kristauaren pasarte: David versus Goliat. Clintonen kontrako hizkera misoginoa ere subkontziente horretan ondo sartzen da. Azkenean katoliko eta ebanjeliko kontserbadoreen liderren babesa jaso du. Elkarte ebanjeliko indartsuenaren buruak espreski konparatu izan du Trump David erregearekin, beste batek paralelismoa egin zuen batetik eta besteak emakumeekin egindako bekatuekin; alegia, Jainkoak usaintzen duela gizon berezien karisma, bere artaldearen artzain izateko hautatuz ahuleziak ere badituzten buruzagi bulartsuak.

Karisma diozu? Historia zaharrari bezala gaurko aktualitateari errepara-

tuta, Schwentzelek ikusten duena da karisma ez dela hainbeste buruzagiaren barnetik ateratzen baizik eta bere aginduetara jarri nahi duten jendeengandik. "Karisma, edertasuna bezala, subjektiboa da. Ez ahaztu karisma eta xarma sustrai bereko hitzak direla. Adoratzailerak dira liderra karismatiko ikusten dutenak. Norbait karismatikoa iruditzen zaizula esatean funtsean diozu maite duzula. Buruzagi izan nahi duenaren aztikeria da karisma daukala erakustea edo erantzun egokia ematea jendearen artean dagoen karisma eskariari".

Adolf Hitler ere ez zen berez gizon karismatikoa, baina Alemania umiliatu hartan herritarrek sentitzen zuten halako norbaiten beharra eta une egokian iritsi zen. Berak eman zien irrikaz eskatzen zuten erantzuna. ■



50 urtez elkarrekin



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Uri Ruiz Bikandi, irakasle erretiratu «Eskolako ateak itxi eta umeak sailkatzeko joera klasista dago»

Andereño ari zen 1970eko hamarkadaren hasieran, eta irakaskuntzan eman du bizi osoa, orain urte bi erretretan sartu zen arte. Asko baino gehiago idatzia da, ikastaro asko baino gehiago zuzendua, hizkuntzen didaktika beti kezka. Bitartean, aldi bihurri baten lekuko izan da, eta heterodoxiatik jardun du, zorrotz.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIAK: ZALDI ERO

Gaixorik zaudela jakinarazi didate. Biriketako minbiziak jo zaitu. Zer moduz zaude?

Harrigarri bada ere, ondo. Pozik. Irailaz gero medikurik mediku ibili naiz, frogatik frogara. Luze ibili nintzen harik eta abenduaren 20an minbizia diagnostikatu zidaten arte. Birikak harrapatuak nituela esan zidaten, gauza larria dela, oso larria. Ez dago birikak kentzerik, eta biriketan daukadana kentzerik ere ez dago. Fisikoki oso ondo nago, arnasa ondo hartzen dut, ez dut minik... Primeran nago. Badakit zer daukadan, eskannerrean ikusi dut gaitza, baina minik ez daukadan bitartean, oso ondo.

Heriotza Duinaren Aldeko Elkarteko kide omen zaitugu.

Ama zelan hil zen ikusi nuen, eta terriblea iruditu zitzaidan. Minbiziaz hil zen, klinika pribatu batean. Suerte txarra izan zuen, Gabonetan gaizkitu zelako eta gabon zahar egunean eraman genuelako klinikara: mediku gutxi, erizainak batek daki non... Gogoratzeak ere ikara ematen dit. Ama oinazetan zegoen, eta gu senideok korridoreetan, laguntza eske: "Mesedez, egizue zerbait!". Inor ez zen

agertzen. Izugarria. Beti pentsatu dut, eta amak ere pentsatzen zuen, eutanasia eskubidearen jabe izan beharko ginatekeela, pertsonak ezin ditugula tratatu animaliak baino txarrago: zaldi bat hil-zorian dagoela, arindu egiten diogu sufrikarioa. Eta ama oinaze handiz hil zen, medikuek ez zioten lagundu. Geroago, jakin nuen bazela Heriotza Duinaren Aldeko Elkartea, bazela bizi-testamentua... eta elkarteko kide egin nintzen.

Gazterik hasi zinen irakaskuntzan, eta 70eko hamarkadaren hasieran ikastolan ari zinen andereño.

Hasteko, 1970-71n Iurretako ikastolan irakasle nintzen. Batxilergo ikasketak laugarren maila arte egin eta Bilbora joan nintzen Merkataritza peritu ikasketak egitera. Han, hirugarren urtean ari nintzela (16 urte nik), aita hil zitzaidan. Kurtsoa galdu nuen. Bulego batean hasi nintzen lanean, eta lan hori gorroto nuela konturatu nintzen. Laster esan nion amari: "Bulegoan ez, ama, ez dut gura behar hori". Eta maistra egin nahi nuela esan nion, nahiz eta aurretik ez nuen nahi izan, maistra izatea Durangon ikasten ari nintzen kolegiokoekin bidea

zelako. Eskola partikularrak emanak nituen ordean, eta gustatzen zitzaidan. Eta Durangoko moja eskola batean hasi nintzen lanean, haur hezkuntzan, eta libretik etortzen nintzen Gasteizera ikasketak egitera. 1970ean irakasle ikasketak amaitu eta, titulua neukala, zain neukan Iurretako ikastola. Eta haraxe joan nintzen.

Uribarri Ruiz Bikandi

1950, Durango

Iurretako (Bizkaia) Catequesis San Miguel ikastolako irakasle zen 1970ean. Hasiera zail, bihurri, korapiloa ezagutu zuen Bizkaiko ikastoletako irakasleen koordinatzaile zela, ikastoletako lehenbiziko lan gatazkak eta Adela Ibabe andereñoaren heriotza barne. Gero, Gasteiza jo zuen eta Hizkuntza eta Literaturaren didaktika irakasle izana da EHUn, Bilboko Irakasle Eskolan. Oroz gain, didaktika izan du ikergai 2015ean erretiratu zen arte.



Ikuskaritzarekin gorabeherak izan zenituztela irakurri dut *Hik Hasi* aldizkarian egin zizuten elkarrizketa batean.

Ikasturte hartan bertan etorri zitzaigun ikuskaritza, eta itxi egin zigun ikastola. Catequesis San Miguel zeukan izena gure ikastola hark. Martxoan itxi zigutenetik ekainera bitartean etxerik etxe ibili ginen umeekin, inoren etxean beti. Ikuskatzaileak, guk irakatsi ahal izateko, guardia zibilaren eta poliziaren jokabide zuzeneko agiria eta parrokoaren onespina eskatu zizkigun. Parrokoak erraz eman zidan agiria, nahiz eta nik ordurako elizara joateari utzia nion. Guardia zibiletara joan, eta han ez zutela halako egiaztagiririk, ikuskatzaileak berak emango zidala. Ikuskatzaileari agiri eske joan nintzaionean, “*usted, peligrosa dirigente de ETA*”, hasi zitzaidan, “eskola emateko asmotan zatoz hona? Bizian ez duzu eskolarik emango!”. “Ikusiko dugu hori!”, erantzun nion nik neure aldetik, oilarra baino harroago. “Ikusiko dugu!”, berak. 21 urte nituen.

Zertan zen politika giro beroa?

Ordurako politikoki antolatuta nenbilen. EMK-koa nintzen. Maite nuen eta interesatzen zitzaidan lanean ari nintzen batetik, eta bestetik politikan sartuta nengoen, nahiz eta gauza biak batu egiten ziren. Mentalitate gatazka puri-purian zegoen, euskara batuaren auzia eta hatxearen kontrako borroka. Alde batetik, oso eskuindar zen jendea zegoen, euskal esentzien zaindaria, eta beste aldetik, gu bezalako jendea. Esaterako, gu izan ginen pilulak hartu zituzten lehenbiziko emakumeetakoak. Sartre eta Fanon irakurtzen genituen, Freud irakurrita geneukan. Giro horretan, Bizkaiko ikastoletako irakasleen koordinatzaile nintzen garaian Deustuko ikastolak hainbat irakasle kanporatu zituen, adibidez.

Zuri ere heldu zitzaizun kaleratze haien zipriztina.

1973an Elorriora joan nintzen lanera. Ikastola legeztatu zenean, 1976an, hasi ziren gorabeherak. Ideien aniztasuna ez errespetatzen hasi zirenean, batzuek kontrol ideologia nahi izan zutenean. Ni, esate baterako, Euskadiko Ezkerraren zerrendan agertu nintzen (baina hamahirugarren tokian!), 1977ko lehen hauteskundeetan, eta ordu arte ona baino hobea nintzena (eta nirekin batera beste

Pablo Sanchez Aizpuru

“Don Pablo Sanchez Aizpuru zen hezkuntza ikuskatzailea Durangon. Fatxa hutsa. *‘Peligrosa dirigente de ETA’* nintzen, abenduan egin zen Burgoseko epaiketa zela-eta itxialdia egin genuelako Durangon. Gaua eman genuen elizan, eta irtekeran, hantxe zeuden guardia zibilak, guztion izenak hartzen”.

Elorrioko ikastola

“Ikastolaren azterketa eskatu zioten Ruiz de Olabuenaga Deustuko Soziologia katedradunari eta honek galdera egin zuen gurasoen artean ea ados zeuden kristau ez ziren irakasleen eskuetan euren umeak uzteko. Gurasoen %75ak erantzun zuen onartzen gintuztela, eta azterketa hura bultzatu zutenek beren seme-alabak ikastolatik atera zituzten: borroka irabazi genuen, eta herriko abadeak eta PNVko eskuinak galdu”.

Konpromisoa

“Herria hezteak eta euskalduntzeak denon konpromisoa izan beharko luke. Haserre serioa izan dut ikastolekin, eta salaketa publikoa egina naiz, ikastolek zabaldu ziotelako, 4 urteko haurrei irakatsiz, ingelesari atea. Ikastolek irakaskuntzaren merkantilizazioan gogor jokatu dute. Horrek izen-abizenak ditu, baditu erantzuleak”.

batzuk), deabru bihurtu ginen. PNVko eskuin muturra agertu zen orduan, eta PNVko eskuin muturra diot, PNVk bazuelako, Elorrioren berton ere, beste alde bat. Herrian abadeak agintzen zuen, haren inguruan antolatu zen gorrioren kontrako ehiza. Oso gauza fuertea, ez zen tontakeria izan. Elorrioren izan ginen guztiok oso gogor markatu gintuen kontu hark.

Irakasleak ere kanporatu zituzten hainbat ikastolatatik garai hartan.

Bai. Langile oso onak galdu ziren orduan, esanekoenak ez zirenak. Borroka ideologikoaren ondorio izan ziren langile kaleratzeak. Elorrioko gatazka hura bezala. Ondo jaso ez den borroka izan zen hura. Han herriko abadeak eta PNVko buruek hartu zuten parte. Gogoan dauzkat guraso eta irakasleen arteko besarkadak. Kasik bi urte iraun zuen borroka hura irabazi eta gero, beste urtebete eman nuen ikastolan. Jazarpena hainbestearainokoa izan zen, neka-neka eginda utzi ninduen eta alde egitea erabaki nuen. Gasteiza etorri nintzen.

Elorriotik Gasteiza etorri eta eskola publikoan hasi zinen lanean. Laster, material didaktikoa sortzen ari zinen.

Polita izan zen eskola publikoan euskara irakasten hastea. Lan handia egin genuen materialak sortzen. Lehenengo, *Hegaz* sorta egin genuen. Gero, *Kalakari*. Marraztu, idatzi... Denetatik egiten genuen. Bi ohar ere egingo nituzke nik. Batetik, hizkuntza irakasteko beste modu bat bilatu genuen, ordu arteko hizkuntza liburuak aspergarriak baino aspergarriagoak baitziren, eta jarraitzen dute izaten kasu batzuetan. Bestelako liburuak egin nahi genituen, barre egiteko ere balio zuten liburuak. Ikastea eta barre egitea batera joan zitezkeen. Bestetik, nesken presentzia ziurtatu genuen. *Hegazen*, *Kalakarin*... neskak eta mutilak proportzio berean erakutsi genituen, irudietan, ipuinetan eta denetan. Gure taldearen legea zen.

Hizkuntza eta literaturaren didaktika irakasle eta ikerlari izana zaitugu joan den aspaldi handian eta erretiroa hartu artean EHUn.

Momentu batean, liburugintza amaitu egin zen. Seigarren mailara arte egin genituen. Bitartean, Euskal Filologia ikasten ere hasi nintzen, ezer ez nekielela konbentzitututa eta neure burua jantzi



beharra neukala sinetsita. 87an Euskal Filologia bukatu eta formatzaileen formatzaile ikastaroa egin nuen Madrilén. Hurrengo, plazak atera ziren unibertsitatean. Aurkeztu eta atera egin nuen plaza, Bilbon. Ordurako hainbat testuliburu, artikulua eta zenbait ikerlan argitaratuak nituen eta, bestalde, didaktika zen neure esparrua, urteak neramatzan didaktika lanetan.

Hizkuntzak gurean ez direla ondo erakusten iritzi diozu.

Nire ustez, ez. Askotan nahastu egiten da hizkuntzaren formak ezagutzea hizkuntza erabiltzen jakitearekin. Oinarriko eskolaren helburua ez da linguistikak sortzea, hizkuntza ondo erabiltzen dakien jende gaitua prestatzea baizik. Horretarako, hizkuntzaren nondik norakoak jakin beharko ditu erabiltzaile horrek, hizkuntzaren barne mekanismoei begiratzeko gaitasuna, esangurari mila ertz bilatzeko ahalmena eta esateko modua zaintzeko nahia garatzea. Horixe da inportantea. Ez du balio gauzak edoze-

lan esatea, helburuarekin, solaskidearekin, egoerarekin bat datorren biderik onena baliatu behar da.

Ikastolan hasia lanean baina eskola publikoaren aldeko zara, oroz gain.

Aniztasuna eskolatik dator, txikitandik ikasi behar dugu gu ez bezalakoak direnekin bizitzen. Orain baditugu aukerak, baina aukeraren aurrean ateak itxi eta umeak sailkatzeko joera klasista dago. Hitza horixe da-eta, klasismoa, nahiz eta ez dugun erabiltzen. Ideologia eta klasismo guztien gainetik egon behar du hezkuntzak, harantzago, sakonagoa da kontua. Bestalde, aldiro-aldiro hezkuntza legeak aldatzen ari gara. Agintari bakoitzak nahi du bere zigilua ezarri, bere aldera eraman hezkuntza. Eta horrela ezin daiteke. Eskolak, nire ustez, hortik kanpo egon behar du, printzipio nagusi batzuen azpian, ez besterik.

Zer diozu ikastolen gainean?

Ikastolak egoera jakin batean sortu ziren. Frankismo garaikoak, bederen.

Bestelako eredu bati erantzun nahirik. Ikastolek pedagogia mailan lan handia egin zuten. Eta, esate baterako, eskola laikoaren bidean beraiek eman zituzten lehenbiziko pausoak. Oso gauza inportantea herri honetan. Ikaragarria da herri honek egin duen aldaketa. Ume nintzelarik familia guztietan zen abade edo erlijiosoren bat. Ohore kontua ere bazen hura. Kristaurik kristauenak ginen Euskal Herrian. Baina oso urte gutxian aldatu zen kontua, eta ikastola askok laizismoaren alde lan handia egin zuten, barruko borroka guztiak gorabehera. Borroka larriak bizi izan ziren ikastoletan, euskara batuaren auziarekin lotuta, bestalde, hatxea eta ez hatxea. Modernotasunaren aldeko borroka ikastoletan egin zen, eta irabazi egin zen. Ikastolen aldekoa naiz, aldi hartako ikastolen aldekoa, behintzat.

“Aldi hartakoak” diozu.

Ez dut uste gerora ikastolek martxa hari eutsi diotenik. Ikastola askok eremu pribatua aukeratu zuten, eta haien irakas-



eLEKTRIKA
G R A B A K E T A K

-Grabaketak estudioan eta zuzenekoetan

-Nahasketa analogiko profesionala

-Zuzeneko teknikaria

Ander Barriuso Muñoa

<https://elektrikagrabaketak.bandcamp.com/>
<https://www.facebook.com/elektrikagrabaketak/>
elektrikagrabaketak@gmail.com
tlfnoa: 687046386



**TALLERES
MITXELENA**
S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Eziago Poligonoa · Zikuñaga Auzoa
20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 · 16 · F 943 55 28 16
info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com



leak apenas lotu diren beste sareeta-koekin. Sare publikoak eskaintzen duen prestakuntzara orain joaten diren ez dakit, euren bidea egin dute, eta zergatik ez esan, negozio propioa ere bai. Gauza asko esan daitezke hor, argitaletxe eta beste. Niri hori ez zait gustatzen, ez eduki dituzten pribilegioak, ez erakutsi duten konpromiso sozial txikia: zenbat etorkin ikusten duzu ikastoletan? Hori da gaur egun gertatzen ari dena, nahiz eta inork ez duen hau horrela esaten. Baina hor daude datuak.

Irakasle eskolako irakasle izana zu, "ez oso optimista".

Ez naiz oso optimista, egia esan: gobernuak ere ez du honetan interesik erakutsi. Gauza asko egin litzake. Asma zezakeen eskola eta, batez ere, institutuko irakasleen lana sustatzeko pizgarriak, mintegiak eta praktika onak bultzatzen, esperientziez ikertu eta idatziz ezaten, adibidez, baina ez du egiten. Are gehiago, badirudi Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntzarako Masterrean datozen aldaketak gaiztotuko dutela gaurko egoera. Iruditzen zait, sarean ikasiz, berrikuntzak eta praktikak gaurkoak bezain exkax eta kontrol gutxiak jarraituko dutela izaten. Ez da gaizki pentsatzea unibertsitateak horretan batez ere diru-sarrerari begiratzen diola. Agian, eredu hartuta titulua (praktikan), diruaren truke ematen duten beste unibertsitate batzuk... Gero

eskandalizatuko gara PISA eta ebaluaketen emaitzekin. Eta zein da Hezkuntza Sailaren jarrera gai honetan? Erantzukizun handia bai, baina ardura? Zerbait egin nahi bada, behar da helburuak argi izan, dirua jarri eta jendea prestatu.

Hezkuntzan diru inbertsioa eskatzen duzu.

Unibertsitatearen lan baldintzak izugarri gogortu dira, batez ere irakasle berrientzat. Soldata miserableaz egiten dute lan askok denbora luzean jakin gabe ezagutza esparru horretan jarraitu ahal izango duten. Azken hamarkada honetan, Mundu Bankuak bultzatuta, hezkuntza merkantilizatu egin da maila guztietan. Bakoitza bere heziketaz arduradadila da kontsigna. Unibertsitatean oso ondo igarri da joera hau, baina liberalismoak maila guztietan ezarri nahiko luke, herriko jendearen kalterako, eta hori lortutako eskubide demokratikoen etsaia da. Oinarritzko hezkuntzan, diru asko kudeaketa pribatuaren eskuetara doa. Horrek irakurketa soziala ere badu, noski. Gobernuari ez diot eskola publikoaren aldeko sentsibilitate handirik ikusten. Baina jatorri sozioekonomikoak banandutako hezkuntza sistema areagotuz, hemendik urte batzuetara zatiketa soziala ere areagotuko zaigu, denon kalterako. Hobekuntza sozial handirik ezin espero daiteke alde zurretik sozialki mailakatutako sistematik atera gabe. ■

Aldaketari beldurra, Katalunian ere bai

Mendebaldearen gainbeherak aurpegi asko ditu. Horietako bat da ezker hegemonikoak azken hamarkadatan eman duen espektakulu tamalgarria, inperialismoaren eta neoliberalismoaren ezkutari *progre*a bilakatuz. Baina, krisiaren errautsetatik bestelako ezker berri baten agerpenak ilusioa piztu zuen bazter batzuetan. Ondoren, frustrazioak iritsi ziren. Ezker berri horrek gobernu lortu du Grezian, baina gauzak aldatu baino, herstura ekonomikoen bidea sakontzen jarraitu du. Horregatik, epe motz eta ertainean zaila da irudikatzea ezker eraldatzaileen arrakastarik Lehen Mundu dekadentean.

Ezkerraren ezinaren ardura ez dago bakarrik maila politikoan, arazoak dituen sustraiak sakonagoak dira. Mendebaldeko jendarteak oso kontserbadoreak dira. Maiz entzun dugu *akomodatuak* direla, baina ez, ez da nahastu behar erosotasun ekonomikoa eta kontsumo maila altua. Geroz eta jende gehiagok ditu estutasun ekonomikoak edota ematen dituen lanaldi luzeak ezin dira definitu bizitza eroso baten parte bezala. Halere, jendea kontsumismora besarkatua bizi da, populazioa zaharkitua dago eta, oro har, gehiengoak Stockholmeko sindromearen antzeko zer edo zer bizi du, horregatik, benetako aldaketari beldurra dio.

Benetako aldaketak mina suposatzen du. Unean uneko mina da, nahiz eta etorkizunerako hobe izan daitekeen, baina ez dago aldaketarik modu bateko edo besteko minik gabe. Berriz, mendebaldeko ezker moderatuak edo eraldatzaileak egun saltzen duena da minik gabeko aldaketa. Botoa eman, hauteskundeak irabazi, egungo politika ekonomikoak ñabartu eta dena etorriko omen da bere onera. Greziako Syriza alderdiak hori bera egin nahi izan zuen, politika sozialak lehenetsiz, interes



Asier Blas

EHU-KO IRAKASLEA

@AxiBM

Independentzia aldarrikapenaren hurrengo egunerako teknikoki dena omen dute prest katalanek, baina prest ez dutena da herritar gehiengoaren psikologia. Sektore batzuk (berezi enpresarien artetik) dagoeneko agertu dira esanez ez daudela prest mina sufritzeko, aldiz beste askok ezin du imajinatu ere horrelako prozesu batek epe motzean sortu dezakeen mina

orokorra beste edozein interesen gainetik jarritz, baina sistema ekonomikoa aldatu gabe. Ordea, populazioa mina sufritzeko prest egon ezean hori ilusio bat izan zen, adibidez, euroa utziaz edo uzteko benetako saiakera bat eginez, Europar Batasuna eta Alemania derri-gortzeko benetan negoziatzera. Horrek epe motzean mina sortuko zukeen,

baina epe luzera greziar ekonomia eta herriarentzat onuragarria izango zen. Syriza esan du hori ez dela greziarrek nahi dutena eta beraz, inoizko murrizketa eta politika neoliberalen aplikazio bortitzena egiten ari da euroan gelditzearen truke.

Gurean, bertsio hori ere ikusi dugu eta ikusten dugu egunero. Irribarre egin, koloreak hemendik eta handik, konfetiak eta giro ona, hauekin, baina batez ere botoarekin, helburuak erdie-tsiko direla sinetsarazi nahi zaie herritarrei. Katalunian antzeko sindromea bizi dute, sezesio prozesuak antolakuntza, sormen eta abilezia gaitasun handiak erakutsi ditu, baina bi gabezi eta arazo handi bat ditu: alde batetik, azkeneko hauteskundearen ostetik lidergo eta gehiengo argi baten falta ditu; bestalde batetik, aldaketa-mina binomioa ez da landu.

Independentzia aldarrikapenaren hurrengo egunerako teknikoki dena omen dute prest katalanek, baina ez dutena prest da herritar gehiengoaren psikologia. Sektore batzuk (berezi enpresarien artetik) dagoeneko agertu dira esanez ez daudela prest mina sufritzeko, aldiz beste askok ezin du imajinatu ere horrelako prozesu batek epe motzean sortu dezakeen mina. Aldebakarreko edozein independentzia prozesuak mina sortu du epe motzean, era atseginagoan esanahi badugu deserosotasunak sufritu dituzte herritarrek. Ekonomia gaixotzen da; nazioarteko aitorpenik gabe sistema finantzarioa aldrebestu eta kaltetzen da; soldatek bera egin ohi dute, produktuen prezioek gora egiten duten artean; eta abar. Antzeko egoerak sufritzeko prest egongo dira katalan independentistak? Orain arte iragarritako datak bete ez izanak eta prozesuaren atzerapenak garbi uzten dute mina saihesteko nahia, garaituko al du beldurrak? ■

Bista zorrozteko ahalegina

Ez dira guretarik. Ezta gu bezalakoak ere. Alderantzizkoak ditugu, aldrebeskoak, kontrarakoak. Gure salbuespena araua da haiendako, eta haien araua guretako salbuespena. Gure araua haien salbuespena da, haien salbuespena gure araua.

A ereduak fama txarra du gure artean. Aspaldi handitik. Urtean behin edo bitan, euskaltzaleen haren desagerpena aldarrikatu ohi dute Euskal Autonomia Erkidegoan. Nafarroan, hainbertzeraino gabe, ez ikusia egiten diogu. Ez balego bezala jokatzeko. Ez da lan nekeza, ikusgarritasuna baitu eskas, hitza nolanahi ulertuta ere.

A ereduak ez du inon nabarmentzen. Inork ez du aipatzen, hain gutxi goratzen. Seme-alabak eredu horretara bidaltzen dituzten aita-amek ez dute inoiz elkarterik edo bertzelako erakunderik sortu. Ez dute beren kezak nola bideratu. Beharbada kezkarik ere ez dute. Haien irakasleek, bertze horrenbertze.

Erran gabe doa, A ereduak ez dute festarik egiten, ezta urtean behin elkarretaratze erraldorik ere. Euskaltzaleek ez dute maite. Eta euskaltzale ez direnek ere ez, Nafarroan bederen. Egin zaion kritika nagusia arrazoi-arrazoizkoa da: A ereduak ez du inor



Aingeru Epaltza

IDAZLEA ETA ITZULTZAILEA

@Aepaltza

A ereduak ez dute festarik egiten, ezta urtean behin elkarretaratze erraldorik ere. Euskaltzaleek ez dute maite. Eta euskaltzale ez direnek ere ez, Nafarroan bederen

euskalduntzeko balio. Nola Batxilergoan eman zizkiguten frantses ordu guztiengatik ere gutako gehienak ez ginen zerbeza bat eskatzeko gauza Donibane Lohitzuneko plazan, hala asteen lau orduko eskolak ere aski ez izan ez A ereduak ikasleek kalimotxo eskatzeko Leitzako gaztetxean.

Ez gaitzen, hala ere, hain harroputzak izan. Gurean ere zakur guztiek ez dute zapatarik janzten. D eredutik iragan diren ikasle ohi mordoa ezagutzen dugu denok, euskaraz lau esaldi elkarren segidan lotzeko ezgai.

Bertze batzuen kasua, gainera, okerragoa da. Haien ahotik ez da euskaraz sekula santan hitz bat ere aterako, beren gurasoek horrela erabakita. Gure hizkuntzaren arrastorik ez da Nafarroako ikasleen erdian ikasketa planetan, eta susmoa dut hori ez dela berehala aldatuko. Botoz, diruz eta kemenez oraingoak baino hornituagoa egon beharko du Nafarroako ikasle guzti-guztiak euskararen gutxieneko ezagutza baten jabe eginen dituen gobernuak. Euskarak arrotz izaten segituko du aunitzendako. Eta euskararekin batera, gu ere arrotz. A ereduak ikasleak ez dira guretarik. Ezta gu bezalakoak ere. Alderantzizkoak dira, aldrebeskoak, kontrarakoak. Baina ez kontrakoak. Bertze batzuek ez bezala, badute asteen lau aldiz leihotiki bat irekia, eta handik gu ikusteko aukera. Lausoan baizik ez bada ere. Ordainean, guk ere egin beharko genuke bista zorrozteko ahalegina, haiei ez ikusia egiteari utzita. Hor daude, eta bidelagun izan daitezke. Lana nork egin dugu falta. ■

ARGIAren buletin@

Orain gaika ere bai:
feminismoa, euskara,
herri mugimenduak,
kultura, ekonomia soziala...



Sartu eta aukeratu
zure informazioa:

www.argia.eus/buletinak



“Utopiaren fantasian”, oraindik?



Iñaki Martínez de Luna
SOZIOLOGOA
@imartinezdeluna

Mikel Zaratek *Utopiaren fantasian* liburuxka idatzi zuen 1979an. Horretan *Umeen zentzuna* ataltxo dago, egileak berak “komedia barregarri ta (sic.) negargarri” gisa aurkeztu duena. Ironia maisuki baliatuz, horretan aurkeztu ditu euskaldunen zenbait portaera desagoki. Adibidez, helduek umeei euskaraz egin dezatela esan eta, aldi berean, beraien artean erdaraz dihardutela.

XX. mendean idatzitako ipuin horren egoera bera jasotzen du XXI. mendeko *Posiktibity* kanpainak ere. Ia berrogei urte igaro arren, orduko eta egungo pasadizoen arteko alderik nabarmenena euskarrian datza –liburua *versus* bideoa–, ez edukian edo esanahietan. Optimista eta pesimistaren arteko lehia gogorarazten du antzekotasun horren balorazioak: “Ez gara atzeraka joan ala ez dugu ezer aurreratu?”. Ez bata eta ez bestea, seguru asko.

Hamarkadotan lan sendoa egin da. Lortu dugu, hasteko, euskararen gainbehera eten eta –neurri batean– joera iraultzea. Hori izugarria da, izatez. Hizkuntza borroka honetan, burua lubakitik ateratzen hasi gara, baina gorputza zuloan dugu oraindik.

Lorpenekin jarraituz, euskalgintza –soziala zein instituzionala– ezagutza soziolinguistikoaz jantzi eta eskarmentuz jabetu da. Mugak eta ezintasunak oraindik ugariak diren arren, euskalgintza gertu dago euskarak, lubakitik atereaz,

gizartea konkista dezan. Gizartea konkistatu, bai, hori baita duela berrogei urteko zein gaurko euskararen utopia.

Urrats berriak egiten hasiak gara. Adibidez, *Egia eredu* tankerako ekimenak ugarituz, euskararen erabilera hedatzeko modua aurkitu dugu. Tarra-tarra, bagoaz euskara lubakitik ateratzen.

Ekimen horiek baliotsuak direla jakin eta gero, motz gelditzen zaizkigu lekuan lekuko ekimen isolatu gisa. Orain, gakoa da euskararen erabilera gizarte zabalean areagotzea, ez soilik euskalgintzak eragin zuzena duen meneko guneetan, euskaratik lekutan bizi diren herritarrak ere jabetu daitezen hizkuntza horren errealitate eta balioaz. Hori lortzeko, euskalgintza osoaren bulkada sendoa ez ezik, beste eragile sozial askoren laguntza ere beharrezkoa izango da.

Bide horretan kokatzen da Topaguneak eta Eusko Jaurlaritzak, bi-biak eskutik hartuta, aurkeztu berri duten asmoa: “Euskarak 365 egun: hizkuntza-ohiturak eta gizarte aktibazioa Euskal Herrian eta elkarrekin lantzeko proposamen berria”. Ekimen horrek, duen dimentsio erraldoia tarteko, 2018ra arte ez du argia ikusiko. Egitasmo horretara euskalgintzako eta gizarteko eragileak bilduz gero, euskara lubakitik atera eta gizartea konkistatzen hasiko ginateke. Alegia, “utopiaren fantasian” gelditu ez, eta ametsa errealitate bihurtzen hasteko. ■

Ustezko



Leire Narbaiza
Arizmendi
IRAKASLEA
@txargain

A lbistegiak delituz eta salaketaz zamatuta iristen zaizkigu begi-belarrietara. Urliak lapurretan egin omen duela; ustez Sandiak iruzur egin diola ogasunari... Omen, ei, bide, ustez, antza, itxuraz, dirudienez, agidanez, nonbait.

Hanka-puntetan dabilta kazetariak inor ez mintzeko (betiere euskalduna ez izatekotan mindua). Edota demanden beldurrez, sekula ez dago jakiterik-eta.

Ustezkokeria hau, baina, hedatu egin da; behar ez zen lekuetara, gainera. *Ustezko* bortxaketa, eta ustezko eraso sexuala errepikatzen dituzte mantra baten moduan. *Ustezkoak* atxilotutakoak dira epai batek kondenatu arte; ez, oster, delitua,

sekula ez *ustezkoa*. Halakorik ez da gertatzen lapurretakin, esate baterako. Salatutako lapurretak lapurreta dira, eta kito!

Beraz, *ustezko* erabilita, zalantza jartzen da eraso eta emakume salatzailea. Andrakumeon berbak ez duelako balio, poliziak berak norbait atxilotu arren. Komunikabide askok ez digu sinesgarritasunik ematen andrazkooi halako denuntzia bat egiten dugunean. Antzina ere ezin genuen epaitegietan lekuko izan, adibidez. Historikoki emakumeen esana gutxietsia izan da. Beti, antza, justiziaren izenean. Itxuraz, egiaren mesedetan, emakumeok ustezko gezurtiak baikara. ■

Gure aurpegiei buruz

Badator semea telefono batekin, eta bere argazkiak erakusten dizkit: nerabe gisa izango duen aurpegiarekin, aitona gisa izango duenarekin, neska balitz izango lukeenarekin. *FaceApp* deitzen da aplikazioa. Pantaila ukituz ematen ditu aukera ezberdinak. Erretratu robotenak bezain artifizialak. Errealitatean existitzen ez direnak. Mamu-aurpegiak. Niri ikara sortu didatenak, eta berari, barregura.

Zer esan semeari nire ezinegona azaltzeko? Beharbada ez dela inoiz aitona izatera helduko? Ezin dela aldeez aurretik jakin noiz hilko garen? Heriotzan pentsarazi baitidate erakutsi dizkidan argazkiek. Gauza bat da aspaldi desagertu zen zerbaiten edo norbaiten irudiak duen mamu izaera. Ez da alferrik esaten hilezkortua geratu dela, betikotua. Eta beste bat, zeharo ezberdina, etorkizuneko irudiekin, geroaren promesa egin, eta heriotzaren aukera bera ezeztatzea. Edo ez? Zergatik ezin dut barre egin jokoarekin? Zeren eta, joko hutsa baita. Eta horixe da aplikazioak eskaintzen duen aukeretako bat: irribarre zabala txertatzen du beste zerbait adierazten zuen aurpegian. Hori omen da niretzako filtrorik egokiena, argazki gutxi baititut irribarrez. Salbatuta gaude espezie arraro, susmagarri, horretakoak garenok?

Erretratuetan irribarrez agertu beharra nahiko berria da. Lehen ez zen eginen. Horregatik ere bada Mona Lisaren irudia horren berezia, eta hark ere, iradoki baino ez du eginen irria. Aurpegiak ez dira irribarretsu ageri ez Rembrandt, ez Velazquezen pinturretan. Kontuan hartzekoa izango da dentistarik ez zutela, eta hortzak ez zirela aurpegiko atalik erakusgarrienak izango. XX. mendeko argazkilarien erretratuetan ere urriak dira aho alaiak, gutxitan aurkituko ditugu



Irati Elorrieta

IDAZLEA



Antton Olariaga

August Sander edota Dianne Arbusen motiboetan. Baina XXI. mendekoak gara gu, ados. *Selfie*-ak eta *smiley*-ak asmatu ditugu. Hala bada, artista britainiar bat *FaceApp* instalaturik zuen *smartphone* batekin sartu da berriki Amsterdamgo Rijksmuseumean, eta eraldatu egin ditu hango pintura eta eskulturetako modeloak. Serioegiak ei ziren. Jarraitzaile eta imitatzaile asko izan ditu haren ideia jenialak. Horretarako dago egina aplikazioa, garena baino alaiagoak izan gaitezen? Atzamar-ukitu hutsez?

Badakigu errealitatea desitxuratzeari –eta faltsutzei– argazkigintzaren oinarrian bertan kokatuta dagoela. Misterio bat, ilusio bat izan dira beti argazkiak. Erretratatuak izan denari egindako agresioaz, perbertsioaz idatzitako izan dute argazkigintzaz pentsatu dutenek. Efektuak ere, hasiera-hasierakoak dira, argazkia errealitatea finkatzeko dokumentua zirenekoak. Esposizio luzea eskatzen zuten lehen teknikak, eta denbora horretan egindako mugimenduek mamu-efektua eragiten zuten. Nahi gabe batzuetan, apropos bestetan.

FaceApp hori arin aspertzeko aplikazioa dela entzun dut. Bizitza laburrekoa da eskaintzeko duen dibertsioa. Emaizak oso antzekoak direlako beti. Eta oraingoz behintzat, ez dugu sinetsi nahi denok itxura berbera izango dugula egunen batean. Klon gutxi batzuen bariazioak. Filtroek sorrarazten duten itxuraldaketa hain da azalekoa, hain urrun geratzen da barruko ezer ukitzetik, hain da hutsala! Akaso horixe izan da semeak erakutsitako argazki sorta ikusterakoan gehien ikaratu nauena: trukuaren merketasuna bera. Lasaitua hartzen dut. Ez da izango serioegia naizela, luzerako ematen duten jokoak nahiago ditudala baizik. ■

ARABA
EUSKARAZ
2017
BASTIDA

EUSKARA
zure aukera



ARABA DA ERRONKA



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.araba.eus

Iruñerriko erraietatik datoz HIRI BARATZEAK

Munduan gero eta herritar gehiago doa landa girotik hirietara bizitzera. 2050erako 6.300 milioi pertsona hirietan biziko direla aurreikusten da –gaur egun 3.600 milioi bizi dira–. Eta munduko hirietan nekez egon da inoiz hain banaketa handia pertsona eta naturaren artean. Erantzun gisa, hirietako sustraietatik baratzegintza dator.



Xabier Letona
@xletona

Krisi sistemiko eta ekologikoaren mui-
nean beti da lekurik esperantza erne-
tzeko, eta porlanaren oihanean, horie-
tako bat da hiri-baratzea edo baratze
komunitarioa. Munduko hiri askotan
gero eta errealtate indartsuagoa da or-
tua, eta Euskal Herrian ere bai. Azken
hamarkadan perretxikoen antzera sortu
dira baratzeak gure geografia zabalean:
badira baratze produktiboak, aisialdi-
koak, baserrietako ohiko baratzeak, te-
rapeutikoak, eskoletakoak, hiri-bara-
tzeak, okupatuak...

Argako urak ureztatutako baratzeak
ezagunak dira Iruñean eta bertako azo-
ketan preziatuak haietako barazkiak.
Baratzegintza ekologikoan ere aitzinda-
ri dira hiri buruzagian eta bereziki eza-

gunak Aranzadi meandro emankorreko
produktoreak. Agustin Beroiz baratze-
zaina zen horietan ezagunenetakoa, bai-
na, beste laborari batzuek bezala, alde
egin behar izan zuen bertatik, Iruñeko
Udalak 2012an ohiko baratzeak eraitsi
eta Aranzadiko parkea eraiki zuenean.
Desarrollismoaren ohiko amarruetakoa,
baratze aberatsak botatzea, baratzegin-
tzari buruzko parke tematikoa eraiki-
tzeko.

Lurra, eguzkia, ura gehi zaintza, ber-
din emankortasuna. Hori da baratzea-
ren ekuazioa. Eta ohiko ondare horiez
gain, baratzera hurbiltzen denak beste
asko ere parteka ditzake bertaratzen
diren gainerakoekin. Hortik aurrera, hi-
ri-baratze bakoitza mundu bat da.



Iruñeko Alde Zaharrean Piparrika

Piparrika herri baratzea Iruñeko Alde
Zaharreko Pellejerias Plazan eraiki
dute, orain arte azken hamarkadatan
itxia egon den eremu publikoan. Jarauta
kalearen magalean da eta 1.500 metro
koadro inguru hartzen du. Piparrika tal-
deko kideek berreskuratu dute Iruñeko
Udalarekin elkarlanean.

2013an sortu zen taldea eta aurreko
udalari aurkeztu zioten proiektua. Ez
zen aurkako jarrerarik izan, baina berau
ez da abiatu aldaketaren udala eratu
arte. Aurten udalak lehiaketa publikora
atera zuen hiri-baratze proiektua eta –
elkarte gisa eratuta– Piparrikak irabazi
zuen berau. Dagoeneko 40 bat lagun ari
dira atzera-aurrera baratzearen kudea-



*Iruñeko Piparrika taldeko kideak baratzean
Alde Zaharreko egunean, maiatzaren 27an.*

ARGAZKIA: JOSEBA ZABALZA

ketan, hiru lan batzorde dituzte –hez-
kuntza, baratzea eta dinamizazioa– eta
batzarrean hartzen dituzte proiektuari
buruzko erabaki nagusiak.

2016ko udan egin zituen udalak plaza
prestatzeko lanak: sarrerako ate-hesia
berritu, babes hesi bat altxa, lurzorua
lau jarri eta bestelakoak. Udalak, halaber,
hainbat tresneria erosi du, bai baratzera-
ko bai taulenak –landatzeko egurrezko
askak– egiteko materiala. Guztira 13.000
euroko aurrekontua izan du 2016 eta
2017 artean, gehiena plazaren atontze
lanetara bideratua. Taulenak, konpos-
talekua eta bestelako eraikuntza lanak
aurten egin dira, auzolanean.

Andrea, Monica eta Pedrorekin egon
gara baratzeako eserlekuetan eserita, bai-

na arratsaldeko ekaitzak aterpera bidali
gaitu. “Turismoaz eta tabernez gain, bes-
telako aisialdi molde bat ere bultzatu
nahi dugu eta hiri-baratzea horretarako
aukera ederra da. Horrez gain, bakarrik
dagoenari, eta oro har, bizilagunei harre-
mantzeko espazio berri bat eskaintzen
die”, dio Andreak. Argi utzi nahi dute
proiektu parte-hartzailea dela: “Taldea
eta baratze hau guztiz irekiak dira eta
edonor etor daiteke lanera, hitz egitera
edo, besterik gabe, bertako lasaitasuna
gozatzen. Hau espazio publiko guztiz
irekia da eta hori da nahi duguna”.

Oraingo udalarekin mamitzen ari dira
baratzea, baina hirukoteak argi azpi-
marratzen du ez dutela nahi proiektua
inongo alderdi politikorekin lotzea:

“Hau proiektu zabala da, herritarrena,
eta udala aldatuko balitz ere, honek au-
rrera jarraitu beharko luke”.

Era batera edo bestera, dagoeneko
ehunka lagunek jardun dute lanean
herri baratzean: “Maiatzeko larunbat
batean, adibidez, auzoko gazte mugi-
menduko ehun bat lagun aritu ziren eta
gero bertan bazkaldu genuen” zehazten
du Monikak. Bestelako auzolanetan ere
denetarik elkartzen da, ume, gazte eta
heldu, eta larunbat edo igandea bada,
bertan bazkaldu ohi da, eguraldiak la-
guntzen badu bederen.

Hori bai, oraindik etxetik ekarritakoa
jan behar, bertako erremolatxa, baba,
piper edota tomateak hazten ari dira-e-
ta. Urazak bai, hauek handi daude eta



maiatzaren 27an ospatu zen Alde Zaharreko egunean eraman zituzten 30en bat aldameneko Santa Ana Plazan egiten den herri bazkarira. Egun horretan ireki zituzten guztiz ateak, eta aurrerantzean baratzea egunez irekita egongo da eta gauzez itxita, Santa Ana plaza bezala.

“Baratze hau ez da produktiboa – zehazten du Pedrok– bere funtzioa gehiago da hezkuntzari bideratua, baratzearen filosofia zabaltzera. Hirietan ez dadila porlana bakarrik egon aldarrikatzen dugu. Eta baita elikadura burujabetza ere”. Bera da baratzegintzaz taldean gehien dakienetako bat eta pazientziatz azaltzen dio bata eta besteari baratze hainbat sekretu: “Arrautza azal hauek, adibidez, txikitu egiten dira eta uraza artean lurlean barreiatuta, bareak uxatu egiten ditu”.

Proiektua aberatsa da eta mimo handiz zaintzen dute Piparrikako lagunak. Udalarekin lotutako akordioa medio, hainbat baldintza bete behar dituzte, esaterako ekologikoan aritzea, sortutako hondakinak bertan kudeatzea eta salmentarik ez egitea jasotako produktuekin. Arazorik ez, elkartearen DNAn txertatuta duten filosofia da: aipatu printzipioez gain, ureztaontziak erabiltzen dituzte partehartzea handitzeko eta ura aurrezteko, edo ahal den guztia material birziklatuekin eraikitzen dute. Jarduera ugari bideratu dute baratzean

Piparrikakoen iritziz, baratzearen baloreen haizatzea eta auzokideen parte-hartzea da garrantzitsuena.

ARGAZKIAK: XABIER LETONA

» **ANDREA, PIPARRIKAKO KIDEA:**
“Turismoaz eta tabernez gain, bestelako aisialdi molde bat ere bultzatu nahi dugu eta hiri-baratzea horretarako aukera ederra da”

» **PEDRO, PIPARRIKAKO KIDEA:**
“Baratze hau ez da produktiboa, bere funtzioa gehiago da hezkuntzari bideratua, baratzearen filosofia zabaltzera. Hirietan ez dadila porlana bakarrik egon aldarrikatzen dugu; eta baita elikadura burujabetza ere”



eta hauen berri gehiago izan nahi duenak Piparrikak Facebooken duen kontu aberatsean du horretarako aukera.

Udala pozik

Marina Jiménez Iruñeko udalean hiri-baratzeaz arduratzen den teknikaria da eta pozik ageri da Piparrikarekin batera egindako lanarekin: “Guk tokia eta materiala jarri dugu, haiek kudeaketa. Ikusten ari gara auzoko gainerako taldeekin harreman handia egiten ari direla, geriatrikoarekin, San Frantzisko eskolako guraso elkartearekin... Bestelako baratze asko daude Iruñean, baina hauek bereziak dira, besteak beste, eraikitzen duten harreman munduagatik”.

Jiménez en esanetan, datorren urterako hiri-baratzeetarako diru-laguntza lerro bat irekiko dute. Diru-laguntzak eskuratzeko baldintza elkarte gisa eratzea da, udalarekin harremanetan jartzea eta abiatzea. Badira beste proiektu batzuk ere, horien artean Txantrea auzoko Krispila taldeak bultzatutakoa –uraza mota bat da krispila– edo Bustintxuri auzoan eratu den Baratxuri taldea. “Ederra litza-teke hiri-baratze sarea osatzea eta gero eta gehiago izatea”, dio Jiménezek.

Maya Bernal ari da Krispilan, 2016ko otsaila aldera hasi ziren zortzi lagun



proiektuarekin eta urrian baratze-gintzari ekingo diote Txantreako Tartalo plazan. “Orain ere parke bat da plaza, baina guk bestelako parkea aldarrikatu nahi dugu baratzearekin”, diosku Bernalek. Hemen ere tauletan aritzekotan dira, baina Piparrikan baino produkzio handiagoa espero dute. Filosofia bera da: “Auzolana, harreman guinea, edonor aritzea lanean eta gero eraman ditzala barazkiak etxera”.

Mendillorriko baratze okupatua

Iruñeko auzoa da Mendillorri 1998az geroztik eta 11.000 bat biztanle bizi dira bertan. Bertako gazte mugimenduak erabilerarik gabeko udal lur-zorua okupatu zuen duela hiru urte eta bertan baratze-gintzari ekin. Ez zaie ika-mikarik falta udalarekin; honek nahiko luke beste baratzeekin bezala aritzea, elkarte gisa eratzea, proiektua aurkeztea, lehia-eketa egitea eta abiatzea.

Gazteen ustez, udalak dena arautu nahi du eta euren eredia autogestioa da. “Leku publikoak pertsonenak dira. Auzoak eta herritarrek ematen diote zilegitasuna baratzeari. Guk egin dugu herri-baratzea, udalak izan dezala konfiantza eta errespetu dezala proiektua”, dio herri-baratze proiektuan ari den Xabi Senosiain gazteak. Besteak beste, baratzea kontsumoaren kontrako alternatiba gisa eratu zela dio eta haiek zaborte-

ZER DU PIPARRIKAK?

Plano honetan ikus daiteke Piparri-ka baratzeak izango dituen guneak. Gehienak eginak daude jada eta besteak eginbidean.

1. Lorategi bertikala **2.** Uztak txandatze-ko zirkulua **3.** Taulenak eta hazitokiak **4.** Eguterak **5.** Belar usaintsuak **6.** Sendabelarrak **7.** Konposta guinea. **8.** Landare gozagarriak **9.** Jolastokia **10.** Pergola **11.** Jangarrien lorategia **12.** Harmailak **13.** Mahaiak jarlekuekin **14.** Iturria **15.** Ur-hargunea **16.** Biltegia.



zena txukundu egin zutela. Senosiainen esanetan era batera edo bestera 50-60 bat gazte aritzen dira egun proiektuan, “hasieran denak gazteak aritu ginen eta gerora helduak ere hurbildu izan dira interakzio polita sortuz”. Udal teknikari Jiménez-en ustez, “elkartea egingo balute, diru-laguntzak eta jasoko lituzkete, besteak bezala, bestela udalak ezin dizkio diru-laguntzak edozeini banatu”.

Sarrigurren ere bai

Sarriguren Eguesibar udalerriko auzoa da, baditu aisialdirako udal baratzeak, baina baita herri baratze txiki bat ere. Eraikuntzarako ziren 80.000 metro koadro eraiki gabe daude artean eta baratzearen sortzaileek diote, eraikitzen ez den bitartean badutela eskubiderik bizilagunentzat elikagaiak ekoizteko. Lur zoru horiez gain, auzoak 300.000 metro koadro berdegune ditu, horietako gehiena belarra, eta beren ustez hori mantentzea nahiko garestia da: “Hiri-tako berdeguneak pixkanaka baso eta nekazari lurra bihurtu beharko lirarteke”.

Mikelen hitzak dira, telefonoz jardun dut harekin eta, tarterik izanez gero, arratsaldean agian argazkiak egitera hurbilduko nintzela azaldu diot. Hartu dut tarte eta herri baratze heldu naizenean familia bat zegoen bertan eserita eta solasean. “Zuetako bat da Mikel akaso edo baratze-koak zarete?”



*Ezkerrean,
Eguesibarko
Sarriguren auzoko
herri-baratzea;
eskuinean, Iruñeko
Mendillorri auzoan
gazte mugimenduk
baratzea egiteko
okupatutako lur saila.*

ARGAZKIAK: XABIER LETONA



galdetu dut. “Ez, ez gara. Ondotik pasatu gara eta gelditu. Zein txoko polita ezta?”, ihardetsi dit haietako batek.

Mikelek azaldu digunez, txikitik egin-dako apustua da, oso txikitik. “Dendetako egurrezko fruta kutxa batekin hasi ginen. Barruan, konposta, lau uraza eta tipulatxo batzuk jarri genituen eta ondoan ureztaontzi bat utzi genuen, dena iturri batetik gertu. Biharamunean ume bat kutxa ureztatzen ari zen. Eta hurrengo egunetako batean kartela jarri genuen: “Sarrigurengo herri baratza, Baratz hau guztiona da. Anima zaitetz eta zaindu”.

Apurka baratzea loratuz joan da, orriotako argazkian ikus daitekeenez. “Baratzeak gauzak kolektiboki egiteko aukera ematen digu eta guk hori baliatu nahi dugu, baratzea eta barazkiak elkarbanatu nahi ditugu”. Ingaltarrako Todmorden hirian egin zutena dute erreferentetzat: “Han baimena eskatu gabe hasi ziren landatzen. Pam Warhurst-ek hala zioen: ‘Ez eskatu bai-

» **MIKEL, SARRIGURENGO KIDEA:**
“Ingaltarrako Todmorden baimena eskatu gabe hasi ziren landatzen. Pam Warhurst-ek hala zioen: ‘Ez eskatu baimena, hasi landatzen’. Berehala hango udalak ongi ikusi zuen mugimendua eta laguntzen hasi zen”

mena, hasi landatzen’. Berehala hango udalak ongi ikusi zuen mugimendua eta laguntzen hasi zen”.

Ekainean, gutxi erabiltzen den espazio berde batean Sarrigurengo Baso Jan-

garria sortzeko proposamena aurkeztu dute Eguesibarko udal aurrekontu parte-hartzaileetan. Gasteizko Basalburu dute buruan: “Agian ez dugu irabaziko –dio Mikelek–, baina dagoeneko ideia zabaltzea lortu dugu”.

Piparrikako paretaren batean mural txiki bat margotu dute eta bi esaldi idatzi: “Ametsak erein eta itxaropenak bil ditzagun. *Construyamos un mundo donde quepan muchos mundos*”. Kristoren aurreko IV. mendearen amaieran demokraziaren Greziako lehen polis hura gainbeheran zetorrenean hasi zen bere baratzea lantzen Epicuro gaztea. Esklaboei eta emakumeei filosofiaren ateak zabaltu zizkien, Atenasko eskola klasi-koetan hori egitea gaizki ikusia zegoen. Ideiekin baino baratzearen fruituekin egin nahi zuen iraultza laborari berritzaile hark. Nago, Epikuro haren eskolakoak eta 2.500 urte geroagoko herri baratzetako herritar hauek antzeko etorkizuna irudikatzen dutela munduarentzat. ■



B
Bilbao

www.bilbaoeuskaraz.eus

Macronen En Marche garaile, abstentzionisten begiradapean

En Marche (EM) alderdia hirugarrenez jalgi da irabazle bozetan hiru hilabetetan. Presidentzialetarako lehen bi itzulietan garaile izan zen eta legegileetako lehenean ere bai. Emmanuel Macronek lehen itzulian jasotako emaitzak bigarrenean berretsiz gero, Frantziako Errepublika norabide berrian jar lezake agindu duen erreforma gauzatzeko.



Mikel Asurmendi
@masurmendi

Frantziako hauteskunde presidentziale-tan eta legegileetako lehen itzulian izen propio bat gailendu da: Emmanuel Macron. Datorren igandean, legegileen bigarren itzulian emaitzak berretsiz gero, Frantziako Gobernu berriak V. Errepublikak bizi duen krisia gainditzeko promestu dituen neurri politiko berriak definituko beharko ditu.

Hauteskunde biiharamunean alderdiek erdietsitako diputatuen kopurua, bozen portzentajeak eta emaitzak ongi aztertzea izaten da funtsezkoa. Oraingoan baina, horien garrantzia baztertu gabe, bi datu azpimarratu ditugu: abstentzioak ezarri duen inoizko marka altuena, hautesleen %51k ez du parte hartu. Beste datu bat: Frantziako politikak bide berrietan abiarazi nahi duen En Marche (EM) alderdiak, presidentzialetako lehen itzulian bozen %20 inguru erdietsi zuen. Boz legegileetan, berriz, %30 inguru. Galdera bat aieratzen da: Macronek burutu al dezake agindu duen erreforma, aurreko zenbaki horiek aintzat harturik?

Itxura guztien arabera, Legebiltzarreko 557 diputatuetatik 400 inguru EMkoak izanen dira. Gobernu berriko Edouard Philippe lehen ministroak



Macronen En Marche uhin urdinak Frantziako alderdi historikoen eta sistemaren eskema klasikoak hondorarazi ditu.

Asanblea Nazionalaren gehiengo osoa bere alde izanen du. Hasteko eta behin, "mortalasunaren aldeko lege berria" indarrean ezartzeko. Alta bada, Gobernua lanean abiatu orduko Lurraldeen Kohesio ministro Richard Ferrand-i irregulartasunak antzeman zaizkio haren kudeaketa politikoa. Halaber, Gobernuak lanaren eta fiskalitatearen erreformak egin beharko ditu. Bestalde, Estatua-ren segurtasun politikak eta Europar Batasunak eskatzen dituzten neurri politikoak ongi zehaztu beharko dituzte presidentek eta Gobernu berriak.

Hauteskundeek Macronen alderdiari instituzioetan behar duen sostengua eman diote eta datorren igandean berretsiko diote ziur asko. Alta bada, Frantziako Legebiltzarreko ordezkariak irrealak eta ahula izanen da. Herritarren erdiak (%51k) ez dio ezein ordezkari bere konfiantza eman. Presidentea eta Gobernua sostengatzen dituen En Marche alderdiaren oposizioa oso ahula da. Les Républicains (LR) da burua doi-doi zutik atxiki duena. 100 bat diputatu inguru izan lezake. Alabaina, bi alderdien arteko harreman gaiztoek ez dute inolako margenik politika baikorra egiteko. Benoît Hamon-en PS lur jota

dago. 20 diputatu baino ez du izanen. Mélenchon-en Frantzia Intsumisoak ez du PSk baino ordezkari askoz gehiago lortuko. Marine Le Pen FNren ordezkariak ez du Legebiltzarren politika baldintzatzen.

Areago, egiari zor, diputatugaien kezka nagusia, lehen itzulia gainditu ondoren, ea bigarrenean hautatuak izanen diren jakitea da, Legebiltzarreko eserlekua bete ahal izateko. Adibiderako, Benoît Hamon kanpo geratu da, Manuel Valls lehen ministro ohiak aldiz, aurrera egin du. Egungo demokraziaren duintasuna politikarien nahikerien arau neur-tzen da.

Macronen En Marche uhin urdinak Frantziako alderdi historikoen eta sistemaren eskema klasikoak hondorarazi ditu dagoeneko. Presidente izendatua izan ostean, Frantziako Legebiltzarren gehiengo lortzea izan du helburu Macronek. V. Errepublikak bizi duen krisitik ateratzeko gauzatu nahi duen erreforma bideratzeko Frantziako Legebiltzarren gehiengoaren sostengua eskuratzear dago. Galdera jalgi da berriz ere: Asanblea Nazionalan izanen den indar korrelazioaren arabera gauzatu ote daiteke Frantziak behar duen erreforma? ■

Justo Arriola 'A los pies del caballo' liburuaren egilea

"Erantzukizun politiko eta poliziala argitu behar da; ez zuten heroina-trafikoa gelditu nahi"

Justo Arriola elgoibartarra da, hain justu heroinaren kontsumoaren ondorioz gazte asko galdu zituen herrikoa. Bere jatorriak, bere bizipenek eta drogen guruei polizia eta heroinaren zabalkundearen arteko harremanak "konspiranoideak" zirela behin eta berriro entzuteak *A los pies del caballo, narcotráfico, heroína y contrainsurgencia en Euskal Herria* (Txalaparta) lan mardula egitera bultzatu zuten. Heroinari emandako erabilera horren gaineko gertaeren hemeroteke lan izugarria egin eta hori guztia gurera ekarri du. Askorentzat ziurtzat ematen dena egiaztatzeko egarritz liburua harrera ezinhobeia izaten ari da eta urte erdian hirugarren edizioa du jada.



TESTUA ETA ARGAZKIA:
Iker Barandiaran

Tarte laburrean egon ziren bi belaunaldi: heroína ezjakintasun eta erakargarritasunez ikusi zuena, eta arriskutzat hartu zuena. Non kokatzen zara?

Lehenengoan. Drogak probatzeko nahia genuen eta protestatzeko modua ere bazen. Gainera, Franco hil eta gero kanpoko kontrakultura heltzen hasi zen: musika, rocka, liburuak... Horrez gain krisia bizi genuen: industriaren birmoldaketa, langabezia handia... Horrek guztiak eta trantsizio eskasak frustrazioa eragin zuten gizartean eta batez ere gazteen artean. Drogei buruzko ezjakintasun itzela zegoen, abestietan entzuten genuena besterik ez genekien. Eta ofizialki esaten zutena, guztia zela txarra, ez genuen sinisten.

Liburuari dagokionez, Elgoibarri buruz harilkatu duzun kontakizuna du ardatz.

1985 inguruan hasi nintzen jasotzen Elgoibarren gertatzen zena, guk antolatzen genituenak: kontzertuak, kale agerrialdiak, pintadak, norbait hiltzen zela...

Hamabost urtetan horiek guztiak jaso nituen, eta hainbat pasartek liburu honetan ikusi dute argia.

Eta nolakoa izan da herrian izen-abizenekin jasotakoa argitara ematea?

Pentsatu nuen batzuentzat gogorra izango zela senitartekoak hor ikustea, baina nik ere lagun asko galdu ditut, orain arte iluntasunean egon direnak, lotsatzeko moduko zerbait egin izan balute bezala. Pentsa, garai hartan Elgoibarren droga kontsumoarekin lotuta gazte bat hiltzen zen bakoitzean elkarretaratzea egiten zen, eta zenbait familiak ez zuen uzten. Batzuek oraindik ez dute onartzen seme-alabak horretan ibili zirenik eta haren eraginez hil zirela. Hiesak izugarritzko estigma zeukan, heriotzarekin lotzen zen zuzenean. Horregatik pentsatu nuen on egingo ziola jendea, nahiz eta hasieran izenak ikustea gogorra egin. Eta hala izan da, etorri zaizkit hildako batzuen amak, ahizpak... besarkadak eta eskerrak ematera. Aldiz, hildako enpresarien senideek agian ez dute hain ondo ikusi, baina ondorioztatzen nuen historia kontatzekotan hori ere jaso beharra zegoela.

Drogen kontsumoaren eta Hies gaixoen kudeaketa eskasa izan zen...

Elgoibarko EAJk udaltzainburuaren eskuetan utzi zuen drogen kontsumoaren kudeaketa, eta hark pentsatu zuen xiringak gazteei saltzea debekatze hutsarekin arazoa konponduko zutela. Ertzaintzak eta Udaltzaingoak itxita zegoen gimnasio bat hartu eta legez kanpoko atxilotze-gune bilakatu zuten. Gazteak hara eramaten zituzten katxeatzera eta mehatxatzera. Heroinazale batek kontatu zidan pistola jarri ziotela buruan; eta neska batek esan zuen alua miatu ziotela. Edozer egiteko inpunitate osoa zuten. Drogen gaineko debekua eta legez kanpoko egoera baliatu izan dute nornahi atxilotzeko, kontrolatzeko... Hain zuzen ere, AEBetan orain gutxi onartu dute Nixonen garaian droga batzuen kontra egin zutela beltzen eta ezkertiarren mugimenduak kontrolatzeko.

Zein urtetan hasi ziren EAEn xiringak banatzen?

Hiesaren kontrako batzordeek 1988an hasi zuten banaketa, geroago botiketara kaita (kondoia eta xiringa) saltzen hasi ziren. Instituzioak beranduegi, lehenen-



go Hies kasuak eman eta bost urtera, jende ugari hil eta gero. Espetxeetan oso berandu, 90eko hamarkada bukaera arte ez zuten xiringa trukea martxan jarri. Osasun arazoa zena, ordena publikokoa balitz bezala artatu zuten. Hiesa zutenei osasun arreta eskasa eskaintzen zitzaien eta orduan hilabeteetako heriotza zigorra zen.

Zerk bultzatu zintuen liburua idaztera?

Drogen gainean asko idatzi duen Juan Carlos Usó foro batean zioen poliziak ez zuela Euskal Herrian heroinarik sartu helburu politikoeekin. Nik erantzun nion esanez bazirela hainbat zantzu kontrakoa erakusten dutenak. Eztabaidak luze jo zuen, eta erabaki nuen dokumentazioa batzen hastea, dokumentaletan, liburuetan, interneten, prentsan... Atzerrian gertatutakoa jasotzekari ere ekin nion, eta Elgoibarko historiaren zatia ere idatzi nuen. Iaz herriko Gaztetxean pasarte batzuk irakurri nituen. Gazteak zur eta lur gelditu ziren ez zutelako iragana ezagutzen, eta idatzitakoa argitara emateko eskatu zidaten. Horrek asko animatu ninduen. Garai hartan Antonio Escotado pentsalariak Donostian

eman zuen hitzaldi batera jo nuen eta polizia eta heroinaren arteko loturaz galdetzean, "konspiranoikoak" ginela erantzun zidan. Eztabaida itxi nahi dutenen aurrean argudioak jarri nahi nituen.

Arrasateko udaltzain-burua zenak salatu-takoa izugarria da...

Bai, 2015eko irailean *Berriak* Jose Luis Etxeberria *Porrruren* esanak argitaratu zituen harritura gelditu nintzen ez zelako erantzun politikorik izan. *Porruk* egiaztatu zuen La Salve eta Intxaurrendotik irteten ziren auto kamuflatuek heroina banatzen zutela Arrasaten eta beste herri batzuetan. Horrez gain, beste batek kontatu zuen Intxaurrendoko guardia zibilei heroina erosi ziela; eta Iruñeko tabernari batek patruila-autotatik heroina banatzen ikusi zituela. Bestalde, Deban bizi izandako batek kontatu zuen ezezagun batzuek heroina doan eman zutelara larunbat gau baten, eta zenbait atera ezezagun horiek uniforme jantzita ikusi zituela. Liburua argitaratu ostean testigantza gehiago jasotzen nabil; hemen soraluzetar batek kontatutakoa: 80ko hamarkada hasieran taberna bat zuen non ezker abertzar-

lekoak, sindikalistak eta gazteak biltzen ziren. Sarekada batean atxilotu zuten eta hamar egunez izan zuten Madrilgo DGS Segurtasun Zuzendaritza Nagusian jipoiak jasotzen; artean egunero komisario batek eskaintza bera egiten zion: tabernan hitz egindakoa kontatuz gero heroina banatu eta tabernan saltzeko erraztasunak emango zizkiotela. Tabernariak ez zuen amore eman.

Ondarroako *yonkien* esperientziak harritu nau: trafikantei heroina herrira sartzen galaraztea.

Saiatu ziren beraien artean antolatzen, eta herritarren sostengu handia lortu zuten. Heroinaren arazoa beraiek ekarri zutela eta kanporatzea beraien ardura zela ondorioztatu zuten. Ez dut halako beste esperientziarik ezagutu.

Liburu hau bada, baina ere, Pepe Rei, Adore eta Errotatzoren lanari aitortza?

Bai, bakoitzak bere esparruan –ikerketan, salaketan eta prebentzioan– lan handia egin zuten. Pepe Reiren ikerketa-lana ezinbestekoa izan da, dena arriskatu zuen. Berak argitaratu zuen heroina eskala handian banatzen ari zen Guardia Zibilaren mafia batean ziharduena narko turkiar baten testigantza.

Garai hartan heroina barra-barra sartu ziguten. Orain zer sartzen dute gazteak geldiarazteko?

Beti bezala, borrokaren eta momentuaren arabera, baretze eta tontotzeko tresna guztiak erabiliko dituzte.

Egia, justizia eta erreparaziotik asko du zure lanak.

Bai, hildako milaka gazteei omenaldia egin nahi nien. Erantzukizun politiko eta poliziala argitu behar da. Urtero atzematen zuten heroina kopuru barragarria ikusita argi dago ez zutela trafikakoa gelditu nahi. Aldiz, iritzi publikoari begira eta gazteak kontrolatzeko "drogaren" –batez ere haxixaren– kontrako sarekadak egiten zituazten.

Zer dago gure esku?

Zerbait dakienak kontatu dezala. Komunikabideen bidez Ardanazari honako mezua zuzentzen ari natzaio: Zergatik isilarazi zenuen, 35 urte pasa direnean, Arrasateko udaltzainburu izandako *Porru*? Ez al daukagu eskubiderik zer gertatu zen jakiteko? ■

Gazteraiki, lanaren taldea:

“Prekarietateari aurre egiteko, arazo indibidualak kolektibo bilakatu behar ditugu”

Gazte mugimenduak abenduan Barañainen egindako Gazteraiki topaketan hainbat lagunek ikusi zuten gazte langileen arazoei aurre egiteko sareak ehuntzea ezinbestekoa zela, eta lanari lotutako taldea sortu zuten. Ekainaren 18an dute “0” asanblada Bakaikun. Ander Bilbao eta Iñigo Alonso talde eragileko kideek orain arteko bideaz hitz egin digute.



Ane Eslava Serrano

@eslavaane

Euskal Herriko gazteek lan munduan bizi duten egoera salatu duzue, zein da?

Prekarietatera kondenatutako gazteak gara. Eskola partikularrak ematearen truk hiru-lau sosa ateratzen ditugu, egunero tonaka elikagai zaborretara botatzen duen supermerkatuak orduko lau euro ordaintzen digu, Bangladeshen jositako arropak tolesten ditugu... Ikasketak lan merkatutik at kokatzeko borrokatzen gara, gurasoen etxean bizi gara eta praktikan enpresariarentzat doan egiten dugu lan.

Gazteen prekarietateak eragin konkretuak al ditu?

Hainbat gauzaz ari gara: kontraturik ez izatea, soldata baxua, lan ordutegi finkorik eza, azpikontratazioa... Eta kontzeptu horien ezaugarri komuna da ezegonkortasun eta segurtasun falta. Horrek ez du eragiten soilik lan baldintzetan, gure bizitzako esparru guztietan baizik, nahi dugun bizi proiektua eraikitzea oztopatzen duelako. Baina hau ez da berria. Industrializazio garaian adibidez, oso lan baldintza gogorak zeuden. Ezberdintasuna zein da? Gaur egun prekarie-

tatea geroz eta sektore zabalagotara hedatu eta sistematizatu dela.

Baina gazte guztiek ez dute prekarietate bera jasaten... prekarietate mota ezberdinez hitz egin dezakegu agian?

Argi dago eskualdez eskualde prekarie-tatearen forma aldatzen doala, sektore produktiboak modu askotan banatuta daudelako. Hiriburu eta hirugarren errealitatea lotuago dago hirugarren sektorerako. Kasu hauetan arazoetako bat da hiri handietako agertokiak gero eta erlazio handiagoa dutela multinazional eta enpresa handiekin.

Herri txikietan, berriz, beste arazo batzuei egin behar izaten diete aurre: landa exodoaren eraginez proiektuak aurrera ateratzea oso zaila izaten da; herritarren arteko gertutasunak eragiten du kontraturik gabe edo baldintza kaxkarretan lan egiten ari diren gazteek nagusiei aurre egiteko zailtasunak izatea, eta abar. Beraz, prekarietatearen forma aldatzen da, bai, baina eraginak berberak dira. Horregatik, egoerari aurre egiteko modua denon artean bilatzea planteatzen dugu.



Horretarako sortu duzue Gazteraikiko lanaren taldea?

Gazteraikiren lehenengo asanblada Añorgako (Donostia) Firestone lantegi okupatuan egin zen. Han, gazte mugimenduko hainbat kidek ikusi genuen erresistentzia fasetik alternatiben eraikuntzara joan behar ginela. Egun horretan hamaika arlotan banatu ginen (feminismoa, etxebizitza, lana, komunikazioa...) eta honela sortu genuen lanaren taldea. Bigarren txanpa Usurbilen izan zen: ikusi genuen egungo gazte langileon atomizazioari aurre egiteko beharrezkoa zela gure arteko sarea zabaltzea. Horren ondotik, Euskal Herriko hainbat txokotan salatu genuen prekarietatea; Madrileko Prekarioen Bulegoko kideak ere etorri ziren Hego Euskal Herrira eta hiriburu guztietan hitzaldi-etzabaidak egin genituen beraien proiektua ezagutzera emateko.

Euskal Herrian bulego prekarioak sortuko dituzue, zein helbururekin?

Gazteak kontzientziatu eta aktibatu nahi ditugu: prekarietate egoeran dagoen gazte bakoitzarekin hitz egin eta haren



Ezkerrean, Iñigo Alonso eta Ander Bilbao, Gazteraiako lanaren taldeko kide guztien izenean hitz egin dute astekari honekin. Behean, gazte mugimenduak Barañainen egindako topaketen irudia; horren ondotik hainbat pauso eman dituzte taldea sortzeko: "Ikusi genuen egungo gazte langileen atomizazioari aurre egiteko beharrezkoa zela gure arteko sarea zabaltzea".



TOPATU

arazoari denon artean erantzun. Tokian tokiko sareak ehundu nahi ditugu, babesa, mobilizazioa, bitartekaritzak juridikoa eta informazioa emateko. Gazte batek arazo zehatz bat badu, hura ezagutze-ara emango dugu, adibidez manifestazio eta *performance*-ak eginez edo esku-orrak banatuz. Norbanakoaren zapalkuntza arazo kolektiboa dela erakutsi nahi dugu azken batean. Bide juridikoa erabili behar izanez gero sindikatuarekin jarriko gara harremanetan, baina mobilizazioa guztiz beharrezkoa ikusten dugu, irakurketa politikoa kalera ateratzeko. Horrez gain, jadanik existitzen diren alternatiben inguruko informazioa eskaini nahi dugu eta proiektu bat sortzeko asmoa duten gazteak OlatuKoop bezalako eragileengana bideratu.

Antzekoa egiten duen eredurik ezagutzen duzue?

Bai, eredu ugari daude, AEBetako Seattle Solidarity Network-a kasu, langileen arteko elkar babesa eta ekintza zuzena oinarri duena. Beste adibide batzuk badaude: Red de Solidaridad Popular (Madril), Vaga de Totes (Herrialde Katalanak), Sindicat de Barri (Gràcia, Bar-

zelona), Grupo de Respuesta Inmediata (Kanaria Handia) eta Las Kellys (Espainiako Estatua), besteak beste. Euskal Herrian, Iruñerriko Langileen Autodefentsa Sarea eta Gazte Langileok kolektiboa daude, Bilboko Eragin kolektiboa, Orereta eta Bilboko Langileen Elikagai Banku Solidarioa... Gure asmoa da horien akats eta lorpenetatik ikasi eta gure errealitatera egokitutako mugimendua sortzea.

Tokian tokiko lan-taldeak sortu dituzue, nolako harrera izan du egitasmoak?

Hego Euskal Herriko hiriburu guztietan antolatuta gaude eta Ezkerraldean, Durangaldean eta Sakanan esperientzia batzuk martxan daude dagoeneko. Adibide batzuk dira Bilboko hiri ereduaren eta multinazionalen kontrako dinamikak, Ezkerraldean ACBko aferaren hari-ara egindako mobilizazioak, Donostiako mahai-inguruak, Iruñerriko mobilizazio eta autodefentsa sareak eta Gasteizko aurkezpen asanblada. Tokiaren arabera mugimenduak berezko forma hartu du: proiektu batzuk hastapenetan daude eta beste batzuk etengabe hazten ari dira. ■

INAKIBEREZIARTUA

**ENBALAJEAK
BILTEGIRATZEA ETA LOGISTIKA
ZERRA ETA ERAIKUNTZA**



**25 urte baino gehiago paketatze
industrialaren sektorean**

Jauregi auzoa, 75
Hernani (Gipuzkoa)
☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com
mjm@inakibereziartua.com

Koldo Zuazo, hizkuntzalaria

“Hainbeste berbeta egoteak esan nahi du herri hau ez dela kohesionatuta egon”

Mendebaleko euskara liburua, Euskal Herriko sartaldekoko euskalkiaren gaur egungo argazki zehatza plazaratu berri du Koldo Zuazo (Eibar, 1956) hizkuntzalari eta irakasleak. Azpieuskalkien eta aldaeren sailkapena dakar lan berriak, baita hiztegitxoa ere. Irakurtzeko eta ikusteko liburua da, 95 mapa baitakartza: herriz herriko berezitasunak ezagutu nahi dituenarentzat, harribitxia. Mugarrira da lan hau autorearen ibilbide luzean, baina ez da helmuga, beste euskalkiak zain baititu.



Dabi Piedra

ARGAZKIA: ARITZ LOIOLA

1989an hasi zinen Mendebaleko euskara aztertzen, Araban hasita.

Gasteizen lanean hasi nintzenez jakinmina nuen. Gainera, alderdi politiko bat agertu zen, Unidad Alavesa. Haiek zioten euskara ez zela Arabako hizkuntza autoktonoa, Gipuzkoatik eta Bizkaitik eramandakoa baizik. Beraz, ikertzen hasi nintzen. Garai hartan hiru izkribu baino ez zeuden eta bazegoen pertsona oso inportante bat, Gerardo Lopez de Gereñu. Araba osoko toponimia batu zuen eta, gainera, *Voces alavesas* hiztegiaren Araba osoko hitzak sartu zituen. Hortik Arrasate eta Oñati aldera jo nuen, Goierrin ere aritu nintzen, eta Nafarroako Burundun. Bestetik, Bizkaiko euskara beti izan da neure-neurea, guraso biak bizkaitarrak ditut, aspalditik bizi naiz Bilbon. Baina, egia esan, Arabakoa sakon ezagutu arte ez zitzaidan Bizkaikoari begiratzeko gogorik piztu. Gero bai, deskubritzen joan naiz Uribe Kostako hizkera berezia, Orozko aldekoa ere interesgarria da...

Eta 28 urteko lanaren emaitza esku artean dugu: Mendebaleko euskara eta haren barruko hizkerak xehe-xehe azalduta. Bada zerbait.

Lan handia dago honen atzean, bai. Astiro-astiro egin behar den lana da, leku batera joan, gero beste batera... Errazagoa izan da lagundu didan jende guztiari esker, asko nire ikasle izandakoak dira. Borondate itzela dute, haiek gabe ezin da honelako liburu bat egin. Nahia Granderen laguntza ere aipatu nahi nuke, mapak hark marraztu ditu.

Mendebaleko euskara da izenburua. Bizkaiera esatea baino egokiagoa da?

Kontuan izan behar da euskalki honek ezaugarri asko Mendebalde guztikoak direla. Bizkaian erabiltzen dira, baina Araban ere bai, Deba ibarrean... kasu batzuetan Urola bailaran eta Burundun. Hiztegi batean ikusten badut izara bizkaiera dela, ez zait zehatza begitantzen. Berba horren eremua Bizkaia baino askoz zabalagoa da, gauza bera


zapatu, indaba eta beste hainbatekin ere. Bestetik, egia da Arabako euskara amaituta zegoela 16. menderako, ia hilda. Aldi berean, Bizkaian hasita zeuden herri handiak sortzen eta ikusten da Bizkaiko euskarak hartu zuela nortasun bat. Ezaugarri batzuk Bizkaian bakarrik gertatzen dira, adibidez, *dinot*, *dinozu* eta halakoak.

Beti esan izan da Mendebaleko euskara bereziena dela, nortasun handikoa. Horrek badu alde txarra?

Nik uste dut Euskal Herri txiki honetan hainbeste berbeta egotea seinale txarra dela. Esan nahi du herri hau ez dela kohesionatuta egon, azken finean ez dugu herri erakunderik zazpi herrialdeak hartzen dituen. Horrez gain, go-goan izan behar da euskara lehen ez zela eskoletan erabiltzen, idatziz ere gutxi.

Beste euskalkiekin alderatuta horren desberdina da Mendebalekoa?

Baieztape horrek badu alderdi objek-





"Euskalkiak berdinduz joango dira, eta ondo dago. Baina berdintze hori modu naturalean gauzatu beharko da, eta ez lau urterekin eskolan esaten dizutelako 'martitzena' ez dela esan behar, 'asteartea' dela".

tibo bat, bai. Gertatzen dena da, askotan jendea kostako herriak ezagutzera etortzen dela, Ondarroa, Lekeitio edo Bermeo, eta horiek dira berezienak. Etortzen dira eta ez dute ezer ulertzen. Jakina, egun batzuk gehiago geratuko balira ulertuko lukete. Hizkera bereziak dira, baina ez hainbeste. Araba euskalduna zenean ez dut uste halako etenik

zegoenik euskararen barruan. Arabak egiten zuen lotura eta orain puzzlearen pieza hori falta zaigu.

Nola ikusten duzu herri-herriko hizkeren etorkizuna?

Bizkaian nahikoa txarto. Ni euskara batua-aren aldekoa naiz, egin dugun gauzarik onena dela uste dut. Baina euskara batua sartzeko modua ez dut uste egokia izan denik. Batzuek euskara onarekin identifikatu dute eta batua ez dena badirudi txarto dagoela. Batek esaten du *artzai* eta badirudi *artzain* behar duela, eta zer da kontua? Nafarroan, Gipuzkoan eta Araban ehunka urtean *artzai* esan dutela. Gauza bat da baturako *artzain* hobetsi dela, baina ez du esan nahi bestea okerra denik. Kontrako arazoa ere ikusten dut, alegia, batzuek

leku guztietan erabiltzen dute euskalkia, beren etxean baleude bezala, baina telebistan edo publiko zabal baten aurrean batura jo behar dugu.

Gaur egun erraztasun handiagoa dago herri batetik bestera mugitzeko eta komunikabideak hobeak dira. Horrek herrietako hizkerari eragingo die?

Bai, euskalkiak berdinduz joango dira, eta ondo dago. Baina berdintze hori modu naturalean gauzatu beharko da, eta ez lau urterekin eskolan esaten dizutelako *martitzena* ez dela esan behar, *asteartea* dela.

2017an argitaratu da Mendebaleko euskalkiaren ezaugarriak deskribatzen dituen lana. Berandu gabilta euskaldunok gure dialektoak ezagutzeko zereginean?

Berandu gabilta, bai. Bonapartek egin zuen ahalegina, baina bere helburua mapa egitea zen, ezaugarri zehatzetan sartu gabe. Esaterako, gipuzkera eta bizkaiera bereizteko datu bakarra erabili zuen, *dot* edo *det* esaten den. Bonaparteri txalo jo behar diogu, baina haren ondorengook alfer ibili gara. Herri jakinetako hizkerak bai, ikertu izan dira, lan batzuk oso onak dira, baina Mendebal osoko azterlanik ez da egon.

Zergatik hutsune hori?

Tira, diktadura luze bat izan dugu eta unibertsitatetik ez da egon oraintsura arte. Bestalde, asko begiratu diogu iraganari, dela toponimia, dela abizenak edo euskararen jatorria. Hizkuntza aurrera atera behar badugu, orain daukaguna ezagutzea da aurrena. Konplexuak ere sumatzen ditut, beharbada jartzen gara 17. mendera begira, Axular, Leizarraga eta horiek goraipatzen, baina gaurkoari ere heldu behar diogu.

Bonaparteren mapa gaurkotu zenuen arte ia mende eta erdi igaro zen. Zure mapak hainbeste urte iraungo dute?

Bonaparteren mapa beti izango da lekukotasun historiko bat, halako mapa ederrik ez dut ikusi munduan. Gertatzen dena da hizkuntzak aldatu egiten direla eta noizean behin argazkiak atera behar zaizkiela. Nire mapak ere lekukotasun bat baino ez dira, 21. mendearen hasieran euskara nola dagoen. Honek zenbat iraungo duen? Nahikoa gutxi, orain bizi-modua lasterrago doa. Jendeak esaten dit Bonaparteren etsaia naizela, eta kontrakoa da, nik ikusten dudalako haren lana zein zaila izan zen. Gaur egungo baliabide guztiekin, urte mordoak behar izan dut liburu hau egiteko eta Bonapartek mapa bikaina egin zuen Londresen jaioa eta erdalduna izanda, hori meritu itzela da. ■

BABESLEA: **IBARRAKO UDALA**



IBARRAKO
udala



San Bartolome plaza, 2
20400 Ibarra
www.ibarra.eus
EUSKARA ZERBITZUA:
☎ 943 673 827

Mexikoko Maseual herria

KOOPERATIBAK LURRALDEAREN DEFENTSARAKO LANABES

“Maseual identitatea bizitzeko modu bat da, sentitzeko modu bat, jokatzeko modu bat, nire bizitza da”. Horrela definitu du Maria Luisa Albórezek Tosepan Titataniske kooperatiben elkarte. 40 urteko ibilbidea duen mugimendua da Tosepan, kooperatibismoa, maseual identitatea eta lurraren defentsa oinarri dituen.



TESTUA ETA ARGAZKIAK:
Ane Urkola

Maseual herria Mexikon dago, Puebla estatuko ipar-ekialdeko Cuetzalan herrian. Puebla hiriburua atzean utzi, eta behe-laino itxiak kolore berdez zipriztintzen dituzten mendiek, pinudiek eta belardiek Euskal Herria dirudite. Errepide estuek, kolorez betetako etxeek eta umiltasunez betetako irribarreek gogorarazten dute ordea, handik oso urrun dagoela. Cuetzalan herrira ailegatu eta 10 minutura dago Tosepan Titataniske kooperatiben elkarte.

Tosepan Titataniske: “Elkarrekin irabaziko dugu”

1980. urtean sortu zen Tosepan Titataniske Kooperatiba Elkarte (“elkarrekin irabaziko dugu”, nahuatl hizkuntzan): “1970eko hamarkadaren amaieran, azukrearen uztza oso urria izan zen eta asko garestitu zen; oinarritzko produktu hau herritarrek ezin zuten erosi. Orduan, San Miguel Tzinacapan eta Xeloxochilco komunitateetan nekazarien dendak sortu zituzten azukrea prezio baxuagoan

lortzeko. Arroza, babarruna eta hala-ko oinarritzko produktuak ere saltzen hasi ziren eta denda horiek kooperatiba bihurtu ziren. Cuetzalan herriko beste komunitateetan jarri zituzten martxan horrelako kooperatibak, eta kooperatiben elkarte sortu zuten”. Horrela bizi izan zuen hasiera hura Yolita Argueta Tosepan komunitateko irakasleak.

Kooperatiba horietan, herritarrek beren kontsumorako erosten zituzten produktuak, eta ondoren, nekazariak produktu horiek ekoizten eta saltzen hasi ziren. Hasieran, azukrea ekoizten hasi ziren, baina gaur egun, kafea, pipermina, ezti, kanela, platanoa, ardoa, likoreak eta eztiarekin egindako bestelako produktuak ere saltzen dituzte kooperatiben bitartez.

40 urtean asko hazi da Tosepan eta gaur egun 430 kooperatiba baino gehiago daude 29 herritan. Horiez gain, herrialde guztiko bazkideei zerbitzua eskaintzen dieten zortzi kooperatiba ere sortu dituzte; horien artean dau-

de irratia, hezkuntza, osasungintza eta etxebizitza lantzen duena, turismoaz arduratzen dena, kredituak eta aurrezkiak banatzen dituen, emakumeak elkartzen dituen eta banbua saltzen duena, besteak beste.

1998. urtean sortu zen aurrezkien eta kredituen kooperatiba. Bazkideek beren aurrezkiak gordetzen dituzte eta aurrezki horiek ematen dizkiete bazkideei, kreditu bidez: “Bazkide bakoitzak diru kopuru txiki bat ezarri zuen eta 630.000 peso bildu genituen. Gaur egun, 300 milioi peso lortu ditugu kooperatiba horren bidez”, azpimarratu du Aldegundo González Tosepan kooperatibako Formakuntza Zentroko arduradunak. Kooperatiba horren bidez funtzionatzen du etxebizitzaren programak: “Aurrezkien kooperatibak kreditua eskaintzen die etxebizitza eraiki behar duten bazkideei, eta interes-tasa oso baxua da. Programa horren bidez, 15.000 etxebizitza baino gehiago egin ditugu azken 10 urteetan”, azpimarratu du Gonzálezek.

Territorioaren defentsan antolatutako asanblada.



“Lurra lantzea da herrialdea defenditzeko modu bakarra”

Maseual herriaren ezaugarririk handiena da ama-lurra zaintzea: “Tosepan komunitatean kooperatibismoaren balio unibertsalak landu ditugu urte horietan, baina 2013. urtean, maseual herri indigenaren mundu ikuskera definitzen duten balioak gehitu genituen: konfiantza, bihotz ona izatea eta lanean ari garen ingurua zaintzea, hurrengo belaunaldiak guk jaso dugun moduan itzultzeko”, azaldu du Aldegundok.

Azken urteetan, mehatxu handiak dituzte herrialdean. Peña Nietoren gobernuaren baimenarekin, proiektu hidroelektrikoak, meatzeak eta energia elektrikoa lortzeko azpi-estazioa eraiki nahi dituzte Pueblako ipar-ekialdeko mendikatean. “Badira hamar urte proiektu horien inguruko informazioa dutela, baina guri ez digute inolako informaziorik eman. Cuetzalan herrian goi-tentsioko lineak egin nahi zituztela ohartu ginen, baita lau meatze hidro-

elektriko ere. Presidenteak eta gobernuak esan ziguten proiektu horietatik lortutako energia komunitateentzat dela, baina herritarren gehiengoak energia elektrikoa dauka”, baieztatu du Isabel Bautista herrialdearen defentsan lan egiten duen kideak. Proiektu horiei aurre egiteko antolatzen ari dira komunitateak. “Proiektuaren berri jakin genuenetik hasi ginen informazioa biltzen, agintariekin bilerak egiten eta herrialdearen defentsaren inguruko asanbladak egiten”, azaldu du Bautistak, proiektu horietako bati aurre egiteko eraiki duten kanpamentuan. Hlegitea sartu zioten proiektuari eta momentu honetan gelditi dago.

Ez dira fio ordea: “Cuetzalan herriaren kanpoaldean, energia elektrikoa lortzeko azpi-estazioa egiteko proiektua dago. Azaroan, manifestazioa egin genuen gelditzeko eskatuz. Egun horretatik aurrera lanak hasi zitezkeela esan ziguten, eta momentu oro bertan egon behar genuela erabaki genuen. Lanak hasiz gero, herriari abisatzea da gure

zeregina. Herriaren batasuna da indarra, eta indar hori komunitate guztientzat”, nabarmendu du Bautistak. 2013. urtetik aurrera, komunitate guztietako kideek asanbladak egin dituzte proiektuaren aurka. Hemenetzigarren asanblada egin zuten apirilaren amaieran, eta herri indigenetako kideek erabaki zuten energia burujabetzaren aldeko urratsak ematen hastea: “Helburua da energia elektrikoa ematen diguten kable horietatik deskonektatzea eta proiektu horiek egiteko arrazoiak gutxitzea”, azpimarratu du Gonzalezek.

20 urte maseual identitatea indartzuz

Tosepan kooperatibako lurretan nahuatl hizkuntza hitz egiten dute eta ezagutza eta erabilera gutxitu egin zela ohartu ziren. 20 urte daramatzate identitatea indartzeko lanean: “Identitateaz ari garenean, hizkuntzaz, dantzaz eta ama-lurraz ere ari gara, eta horiek guztiak dira garrantzitsuak”, adierazi du Gabriel Vázquez irakasleak. 2006. urtean, Tosepan

**SUEÑA
ZARIA
USAn USO**

Saio bakana
with **SPECIAL
guests ...**

HAATIK DANTZA KONPAINIA
OSCAR PORTUGÜES **INAKI ALBERDI**
ANNE BENGOA **PATXI ZUBIZARRETA**
MAIDER RONQUETE **HODEI GABINO**
THAYAN ELIM **JOSE ALTAMIRA**
CRISTIAN GOEX **IMANOL ELIZASU ...**

SARRERAK:
 ZARIA KORU ESKOLA
 SEGUNDO IZPIZUA, 3. ERRETERIA
 INFO@ZARIAKORUESKOLA.EUS

EKAINAK 17 20:15
 ERRETERIA
FATIMA ELIZAN

MARCOS
 okindegia

**Benetako
aitzinako ogia**

© 943 450 966
 Ubarburu pasealekua, 113
 Astigarraga (Gipuzkoa)

Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
 (euskaraz, pertsonalizatua)

SIGACUS

© 943 453 588 · www.sigacus.com

eskola sortu zen. Ez da beste eskolak bezalakoa, eta hori argi dute Tosepaneko kideek: “Nahuatl identitatearen espiritua, energia eta mundu-ikuskerak lantzen ditugu eta hori da Tosepan metodologiaren bidez lantzen ari garena”, azaldu du Vázquezek.

Nahuatl hizkuntzaren egoera oso delikatu da oraindik eta argi dute lanean jarraitu behar dutela: “30 urte dituen pertsona batek nahuatl hizkuntza hitz egingo du ziurrenik. Ikasleen adina jaisten den heinean, batzuek hizkuntza hori hitz egiten dute, baina beste batzuek ez. Hiru urtetik 30 urte bitarteko herritarren %28k ez du nahuatl hizkuntza hitz egiten”, azaldu du Gonzálezek.

Galera handiena haur eskolan dago eta urte hauetako zeregin handiena material didaktikoa sortzea izan da: “Asko sortu dugu urte hauetan. Hainbat proiektu jartzen ari gara martxan gure hizkuntzan lan egiteko materiala sortzeko”. Proiektu horien artean daude hiztegia eta Maseualpedia proiektua. Nahuatl hizkuntzaren dokumentazio lana hasi zuten eta 8.245 kontzeptuko hiztegia sortu. Kooperatibako ikerketa taldea herrialdeko zuhaitzen, landareen eta loreen inguruko informazioa lortzen ari da, eta informazio hori guztia Maseualpedia izeneko webgunean biltzea da beren helburua, herritarrek nahi dutenean kontsulta dezaten.

Bizitza ona helburu

Hurrengo 40 urteetako helburua bizitza ona lortzeko urratsak ematea da, eta horrek gauza asko hartzen ditu bere baitan. Horrela azaldu du Paulina Garrido Tosepan Kooperatibako presidentek:



Goiko argazkian Tosepan eskolako haurrak. Erdikoan, gobernuaren proiektu hidroelektrikoari aurre egiteko eraikitako kanpamentua.

“Alde batetik, identitateari dagokion zatia dago: zein garen, nolakoak garen eta nola bizi nahi dugun ikusi behar dugu, baina era berean, kooperatibaren balioak zabaltzen jarraituko dugu, ekonomia solidarioa, lan komunitarioa eta elikadura burujabetza eta energetikoa oinarri dituzten praktikak indartuz”.

Pierre Beaucage antropologoak dioen moduan, pertsona txikiek gauza handiak egin ditzakete elkarrekin eta horren adibide garbia da Tosepan Titatnisk kooperatiba. ■

PUTAKUMEAK, TIRATU!



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Erroma, 1084. Roberto Guiscard buru zuten tropa normandiarrek Erroma arpilatu zuten, Henrike IV.a enperadoreak preso zeukan Gregorio VII.a aita santua erreskatatzera joan zirenean. Besteak beste, Klemente I.a aita santuaren (K.o. 88-97) omenez eraikitako Letrango San Klemente eliza suntsitu zuten. Laster eraiki zuten – XII. mendean – toki berean gaur egun zutik dirauen basilika, eta XIX. mendean erdialdean indusketak egin zituzten, denboran atzera ia 2.000 urteko bidaia egiteko: basilikaren azpian, normandiarrek eraitsitako lehen basilika hura topatu zuten, V. mendean, kristautasuna Erromako erlijio ofiziala zenean, eraikitakoa. Baina haren azpian Inperio garaiko egitura bat topatu zuten, I. mendeko etxe pribatu bat, Tito Flavio Klemente kontsul eta martiria-rena (garai eta izen berekoa izanagatik, Klemente I.a aita santuarekin nahastu behar ez dena); Tito Flavioren etxean jazarritako kristauak bildu ohi ziren klan-destinoki otoitz egiteko.

Baina indusketetan topatutako gauzarik harrigarrienetakoa askoz berriagoa zen, normandiarrek basilika suntsitu baino lehentxeago egindakoa: XI. mendeko freskoak. Margolan horietako batek Sisinio patrizioaren eta Klemente I.aren istorioa irudikatzen du. I. mendean kristauak jazartzen zituzten, eta

Sisinioren emazte Teodora senarrari ezer esan gabe kristautu zen. Egun batez, Sisinio, emazteari jarraitu ondoren, etxe batean sartu zen eta hantxe aurkitu zituen Teodora eta beste kristau batzuk, Klemente I.arekin otoitzean. Sisinio meza geldiarazten saiatu zen, baina, Jainkoaren esku-hartzea medio, gor eta itsu geratu zen bat-batean, kondairaren arabera.

Klemente Sisiniok errukitu zen eta haren jauregira joan zen patrizioa sendatzeko asmoz. Kristauari esker entzumen eta ikusmena berreskuratu arren, Sisiniok kristaua atxilotzeko agindu zien mirabeei. Berriro ere Jainkoak esku hartu zuen eta Sisinioren mirabeek, nahastuta, harrizko zutabe bat atzeman zuten, Klementeren orde. Eszena irudiz azaltzeaz gain, testua ere badu margolanak.

XI. mendean erromatarrek protoitaliera hitz egiten zuten, latin arruntetik eratorria eta egungo italieraren arbasoa. Idatzi, ordea, latinez idazten jarraitzen zuten. Freskoaren azalpenak ere latinez idatzi zituzten, baina azken eszenan herritarren hizkeran jaso zituzten Sisinioren hitzak, komikietako bunbulloak bailiran. Orain arte idatzita aurkitu diren italiera zaharreko hitzik zaharrenak dira.



BASILICA DI SAN CLEMENTE AL LATERANO

Letrango San Klemente Basilikako freskoa, behean eskuinaldean “Fili dele pute, traite” hitzak idatzita dituena. Orain arte aurkitu diren protoitalierako hitzik zaharrenak izateko ohorea dute.

Carvoncelle, Gosmari eta Albertel zerbitzariak zutabearekin borrokan ari diren bitartean, Sisiniok lehenari hitz egiten dio: “Falite dereto colo palo, Carvoncelle” (Bultzatu zuzen makilaz, Carvoncelle). Eta azken binetan, beste bie ematen die agindua: “Fili dele pute, traite” (Putakumeak, tiratu). ■



eBay-k saldutako lehenengo gauza

1995ean Pierre Omidyar-ek produktak enkantean saltzeko webgune bat abiarazi zuen Silicon Valleyn (AEB). Guneak orduan AuctionWeb zuen izena, baina eBay da gaur egun, munduko 50 marka baliotsuenetakoa bat, *Forbes* aldizkariaren arabera.

Enkante gunea probatzeko, laser erakusle bat (argazkian) jarri zuen salgai.

Erosi eta bi astera hondatu zitzaion erakuslea, eta iragarkian zioen pilak aldatuta ere ez zebilela. Produktu berria 30 dolarrean erosi zuen Omidyarrek; irteerako prezioa, berriz, dolar batean jarri zuen. Lehen astean ez zen eskaintzarik izan. Bigarren astean hasi zen mugimendua, eta azkenean 14, 83 dolarrean saldu zuen alferrikako erakuslea. ■

Kiwiaren milaka hazi



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Loratu da, harro, kiwi arra, *Actinidia deliciosa*. Ar hutsa izanik urteroko bere lan bakarra loreak ireki eta polena askatzea da. Gurean, oraintxe bukatu du urteko egin beharra; hemendik atzera koskabiloak jorratzera: jan eta hazi, jan eta hazi. Horrexegatik, oraintxe da kiwi arra inauteko tenorea. Moztutako tokitik adar berri gazte-gazteak luzatuko ditu, eta horietan, indarrean loratuko da hurrengo urteko udaberrian. Kiwi arrak lan gutxi egiten du: loreak eman eta lore hautsa hedatu, milioika eta milioika polen ixpi sortu intsektuek eta haizeek landare emeek ireki dituzten loreetara eraman ditzaten. Ernalkizuna nola gertatzen den halakoa izango da gero kiwi igalia, ale bakoitzaren kalitatea, alegia. Landare eme bereizietan dauden lore emeek eskuera polena erruz izatea nahitaezkoa da alea ondo hazi eta berrezko helburua betetzeko: haziak ematea. Ernalkizun/ernalketa on batek hazi asko ekarriko ditu, eta hazi askok fruitu ale handia. Ez naiz esateaz nekatzen: fruitu arbolak ez du fruitua guk jateko ematen, bere haziak banatu eta haietatik fruitu arbola berriak sortzeko baizik. Tartean, guk eskua sartu eta jaten dugu, baina baita asko uste gabe bere haziak banatu ere, gero libratzean... Izan ere zenbat hazi ditu kiwi ale batek? Ehunka hazi dituela esan ohi da, batez beste bostehunetik gora, eta zenbait alek baita 2.000 baino gehiago ere, 2.500 aipatzen du baten batek. Nik neuk ez dut asmorik zenbaketa horri ekiteko, hala ere inor horretara jartzen bada emaitzaren berri eman diezagula. Bi mila eta bostehun esker, alde z aurretik!



Kiwi (*Actinidia deliciosa*).

MARIO ANDREA VALORI-CC BY SA

Haziak, noski, landare berriak sortzeko dira. Guk txertatuta jartzen ditugu, aldaera jakin baten klonak, kopiak, alegia. Hazitik aldaera berriak sortzeko aukera handia dago. Saiatu eta lortzen baduzu, zeure alabaren izena jarri ahal izango diozu, edo aitaginarrebarena... Ea bada. Kiwiaren mamia iragazkian zanpatuz haziak bereizi. Uretan pasa eta egun pare batez lehortzen utzi papero edo oihal batean. Haziak ontzi edo

poltsa batean hozkailuan eduki, hiru edo lau hilabetez. Lur gozoz betetako kaxa batean erein, arin estali lurrez eta goxo-goxo zanpatu. Ihinztigailuz ureztatuz lurrari heze eutsi, urasetu gabe. Plastiko edo beira garden batekin estali, hezetasunari eusteko. Toki epel batean jarri. 3-5 astera landaretxoak azaltzean estalkia kendu eta eguzkitan jarri. Hazi ahala, bakandu eta zeharraldatu. Handik kiwidira. ■

Iruñeko zuhaitz zaharren balioa



Garazi Zabaleta

@tirikittrann

ARGAZKIA: EUSKALERRIAIRATIA.EUS



Egun sekuoia da zuhaitzik zaharrena Iruñean, baina historikoki zumarra zen nagusi.

Sinbologia handia izan du historikoki zuhaitzak gurean, eta gaur egun ere badu. Ideia horretatik abiatuta, *Iruñeko zuhaitz zaharren balio kultural eta historikoa* izenburuko hitzaldia antolatu zuten maiatzean Nafarroako hiriburuan. Zuhaitz Zaharren Lagunak elkarteak kide Mikel Belasko izan zen hizlaria. Urteak daramatza taldeak Nafarroako zuhaitz zaharren kontserbazioa eta babesa bultzatzen.

Gernikak bezala, Iruñeak ere bere zuhaitza

Sekuoia bat da Iruñeko zuhaitzik zaharrena. "Berez, ez da oso zaharra: 1855. urtean jarri zuen baztandar batek. Kaliforniatik zuzenean ekarri zuen eta diputazioako lorategian landatu", azaldu zuen Belaskok Euskadi Irratian eskainitako elkarrizketan. Zuhaitza landatu zuten garaian foruen inguruko kontuak pil-pilean egonik, "Iruñeko arbola" izendatu omen zuen sekuoia norbaitek, Gernikako Arbolarekin alderatu nahiz edo. Zorte txar xamarra izan zuen, hala ere, zuhaitzak. Izan ere, 1933an tximistak jo eta kalte handiak eragin zizkion. Ohikoa dirudi gertakari horrek, Iruñeko Alde

Zaharrean zegoen beste sekuoia bat ere duela hamabost urte inguru kaltetu baitzuen tximistak. Zuhaitz altu horiek duten arriskua ikusita, horietan tximistorratzak jartzen hasi berri da Iruñeko Udala. Egun sekuoia bada zuhaitzik zaharrena Iruñean, historikoki zumarra zela nagusi dio Belaskok. Europa osoan zabaldutako grafiosia gaitzak jota, ordea, ia guztia galdu omen zen. Horregatik apenas dagoen Iruñean zuhaitz zaharrik.

Zuhaitz Zaharren Lagunak

2005ean sortu zuten Iruñean Zuhaitz Zaharren Lagunak elkarteak. Nafarroako zuhaitz zaharrak babestea eta aztertzea eta horiei lotutako biodibertsitatea aztertzea dute helburu. "Iraganaren testigu, zuhaitz bakoitzak istorio bat kontatu digu, bere sustraiak bota zituen tokiko historia, bertako jendearena eta ohiturena", diote elkartearen katalogoko sarrera testuan. Horixe izan da *Iruñeko zuhaitz zaharren balio kultural eta historikoa* konferentziaren asmo nagusia: hiriko zuhaitz zaharrak bertako historiarekin, ohiturekin, kulturarekin eta bizimoduarekin harremanetan jartzea. ■

www.bizibaratzea.eus

EUSKAL HERRIKO AGENDA

Ekainak 15: Erriberri Nafarroako mahastizaintza eta enologia zentrorako bisita gidatua

Informazio osoa: 848 427 577
(10:00etatik 14:00etara).

Ekainak 15-16: Donostia EHUren ikastaroa

Basogintzaren bioekonomia Europa hegoaldean: aukerak eta erronkak ikastaroa egingo da Miramar Jauregian, bi eguneko goizeko 9:00etatik 18:00 arte. Egitarau osoa ikusi eta izena emateko: www.uik.eus

Ekainak 15: Zarautz "Barazki eta entsalada sortzaileak" tailerra

18:00etan Lakari kooperatiban (Araba kalea, 33). Prezioa: 22 euro.

Ekainak 15: Elorrio Anbotope pintxopotea

Elorrioko nekazarien produktuekin eginko pintxopotea. 19:00etan gaztetxean.

Ekainak 17: Lazkao Iztueta baserriaren ate-irekiak

Lazkaomendin, 11:00etan bisita gidatua eta 12:00etan ginkana Martinbertso eta Tiritatxorekin. Izena emateko: iztueta@iztueta.eus / 606 435 022.

Ekainak 17: Irun Plaiaundiko saguzarrak ezagutzen

19:30etatik 24:00etara Txingudiko Ekoe-txean. Izena emateko: 943 619 389 / txingudi@euskadi.eus.

ZURE HERRIKO EKINTZEN BERRI EMAN
edukia@bizibaratzea.eus helbidera idatzi edo www.bizibaratzea.eus webgunean bertan, oso erraz.

AGENDA OSOA NOIZNAHI IKUSTEKO
www.bizibaratzea.eus

GURE GAIAK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

"KANTA TXIKIEN INDARRA" DISKOA

3

Kanta txikien indarra Josu Bergararen azken lana

Josu Bergara musikariaren kantuak eguneroko poesiaren gauza txikietan oinarritzen dira. Euskal kantautoreen ohiko musikaz haratago, Bergararen doinuetan Damien Rice, Glen Hansard, Ben Howard edo Jose Gonzalez moduko musikarien estiloa antzematen da. Ahotsaren disdira eta xarma, gitarra jotzeko modu hunkigarria zein bakarlariaren indarra dira nagusi eszenatokian. Laguntzen dioten musikariekin duen lotura bereziari esker, musika eta poesiaren olatu erraldoia bihurtzen dira Josu Bergara-ren kontzertuak. *Kanta txikien indarra* izenburua du bere laugarren diskoak eta Bilboko Kafe Antzokian zuzenean grabatu zuen artista gonbidatuen laguntzaz: Mikel Markez, Maria Rivero abeslaria edo Gaizka Peñafiel trikitilaria, besteak beste. Hurrengo kontzertuak, ekainaren 24an Ean eta uztailen zehar Valentzia inguruan eskainiko ditu.



Eragile hau hobeto ezagutzeko:



TAUPAKA, SORTZAILEEN ELKARTEA

<http://taupaka.eus>
taupaka@gmail.com

#autoeraketa
#sormena
#musika
#kulturalibrea

Ekaineko sariak

1



Txakur Gorria liburuxka
4 ale

2



Txatxilipurdiren "Kale kantoï",
kalean jolasteko bilduma
2 ale

3



Josu Bergararen "Kanta txikien
indarra" diskoa (Taupaka)
4 disko

4



Kontseiluaren eskutik,
Zergatik erropa marka
sorta bat

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.



SARE SOZIALAK

30.000 esker



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Sare sozialek markatzen diguten egunerokotasuneko abiadura bezain bizian doaz ARGIAko sare sozialetako jarraitzaileen kopuruak gora. 30.000ra iritsi gara asteotan Twitterren. Eta lerro hauetan ospakizun txikia egiteko eskatu didate.

Aitzakia hori hartu dugu ARGIAk mundu honetan dituen mugimenduei erreparatzeko. Zein momentutan erabakitzen du hedabide honek sare sozialen zurrumbilo geroz eta indartsuago honetan muturra sartzea? Euskal hedabideen artean lehenengotakoa izan zen etxe hau mundu birtual horretan proba egiten. Zergatik? Batez ere galtzeko gutxi eta irabazteko asko zegoela uste zelako, eta aukera ikusten zelako webguneari falta zitzaion bultzadaxoa bide horretatik etortzeko.

Azken datuen arabera ARGIA euskal hedabideek amaraun hauetan betetzen duten espazioen artean oso leku onean agertzen da eta audientziarik handienetakoa du. Mugimendu handia du sarean eta bertxio eta elkarbanatze asko izaten dira batean eta bestean.

Eta Twitterrez aparte?

Facebooken 20.000 jarraitzaileira heltzeaz da komunikabidea, baina Twitterren baino 10.000 lagun gutxiago baditu

ere, hemen izaten da saltsarik handiena eta argia.eus webgunera bertatik iristen dira sarrera gehien.

Telegramen berriz, 750 lagun inguru biltzen ditu ARGIAren komunitateak, baina besteekin alderatuta zifra asko jaisten bada ere, kontuan izan behar da Euskal Herriko hedabideetan komunitate handiena daukagula, eta zer esanik ez euskarazko komunitatez hitz egiten badugu. Instagram da eman den azken saltoa, eta 2.000 jarraitzaile inguru biltzen dira hemen.

Sare sozialetarako ARGIAk badu bere estrategia. Kazetari bakoitzak du bere kontu pertsonala eta bertan jorratzen ditu bere intereseko gaiak. Baina horrez gain, ARGIAren kontu guztietarako denok ditugu gakoak eta denon artean ateratzen da aurrera.

Asko hitz egin da, dena dela ere, multinazional batzuen jokoetan ari garela etengabe, eta kontziente izan behar dugula gure materiala ezin dugula beren esku bakarrik utzi. Dena gorde behar dugu. Zer gertatuko litzateke egun batean sareak itxi eta sartzeko ordaindu egin beharko bagenu? Tresna oso eraginkorrak dira informazioa zabaltzeko, jasotzeko, baliagarriak gure edukia zabaltzeko, baina noren eskuetan gauden ahaztu ez dugu egin behar. ■

ARGIAko kide egiterakoan emandako arrazoiak

“Maite dut ARGIA nire iraganaren eta orainaren parte delako. Gogoan dut nola hitzak ia ulertu gabe letrak lotu eta irakurtzen ikasi nuenerako gure aita euskaldun berriak Leku Ederren irakurtzen zueneko garaia, elkar ezagutu genueneko, eta nola berak bukatutakoan hartzen nuen neuk lekukoa lerro artean jolasteko. Gogoan ezin gorde, baina, biluziak jantzi dizkidan aldi guztiak. Bihar eta etorkizunean nahi dut ere, altzoan, zerutik iritsi eta inpernu hau hainbestetan argitu zigun eta digun laguna. Bere orrialdeetan kabia egin eta ahotsa eman didan euskal tradizio santuen oinordeko, jipoi eta alarguna. Nire alabek jolastu dute dagoeneko berekin, eta, akaso hortxe izango da –ARGIAren bizitzaren parte batean– etorkizuna. Horregatik eta arrazoi gehiagorengatik aldarrikatu nahi dut ARGIA”

Aitor Kaltzakorta, Irun

Sarean arrantzatuak

Hala Bedi Irratia

@halabedi

Herri komunikabideak indartuz, atzo elkarlanean aritu ginen @argia, @topatu_eus eta @halabedi, @Errekaleor-en aldeko mobilizazioa kubritzen

Baratza: zurrunbiloa eta aterpea

Bada Gasteizen sormen lantegi berezi bat arte eszenikoei begira, ortu izena duena. Neba-arreben harremanetik abiatuta, hiru urtetik gora darama zabalik, korapiloak elkarlotuz eta askatuz etengabe.



Ion Olano Carlos

@sartuda

ARGAZKIAK: MARINA SUAREZ ORTIZ DE ZARATE

Biraka jarri da aurren bigarrenaz Baratza espazioaren Zurrunbilo jaialdia, aterpe emanez euskarazko antzerki berria bilatzen duten ikusle eta sortzaileei. Ekainaren 1ean zabaldu zen zirimola Oihaneder Euskararen Etxean, Miren Tirapuk idatzi eta antzeztutako *Atte hil aurretik* lanarekin; Muskulo musika taldeak eman zion itxiera, hilaren 4an, Baratzan bertan. Kontzertu berezi hartan, ezustean, Oier Guillan antzerkilaria igo zen oholtzara, egunaren zirimolan sortutako poema erreztatzerat: “Ez dadila izan arnasa / tentaldien erreka lehor bat / harrotu daitezela gure gorputzean zurrun biloak”.

Bien bitartean, proposamen eta bizi-pen ugari kiribildu dira aurtengo jaial-

dian. Aipatuz gain, honako hauek: Paraiso kolektiboaren *Jadanik hilda*, dantza garaikide lan intimoa; Ixiar Rozas eta Maite Arroitauregiren *Plastika*, ahots eta hots emanaldi jolastia; *Hiroshima-ko zuhaitza*, Kabia Teatro konpainiaren pieza hunkigarria; *Karramarroa*, Eneritz Artetxeren bakarrizketa lehergarria; eta *Mr. Señora*, Metrokoadroka Sormen Laborategiaren antimanifestu polifonikoa. Eszenan aipatzekoa izan da, nabarmen, emakume ahotsen kolore aniztasuna eta, bereziki, antzezlanen kalitatea.

Bai, jakina: ikuslego aldetik sumatuta, ezinbestean, hiriko gaurkotasanak hizki larriz idatzitako izena, Errekaleor, eta haren aldeko mobilizazioen eragi-

na. Edonola ere, Zurrunbilora hurbildu garenok izan dugu parada, ezohikoa (tamalez), euskarazko arte eszenikoen mailaz eta ugaritasunaz sano gozatze-ko. Antolatzaileek diotenez, Baratzaren hastapenetan, hileroko programatzen zuten asteburu bat; oso zaila zen, halere, ikuslegoa biltzea, bereziki euskarazko antzezlanetan. Hortaz, iazko Zurrunbilo izan zen estreinako saiakera, nolabait, euskal sortzaileen proposamenak bateratu eta ikusgarritasun handiagoa lortzeko.

Baratzako Garazi eta Unai Lopez de Armentia neba-arrebek, behintzat, bazuten horretarako gogoia. Honela dio Unai: “Gasteizen sortzaile asko dago euskaraz lan egin dezakeena, baina





momentuz ez da ikusten horretarako merkaturik, ezta ohiturarik ere. Ordea, hasten bagara konturatzen eta erakusten zenbat gauza eder egiten ari diren antzerkian euskaraz... Ez bakarrik ikusleei, agian hemengo sortzaileei ere ikuspegia zabalduko zaie, emango die bultzada euskaraz lan egiteko. Akaso, ohartuko gara badagoela euskal antzerki sare bat, badirela zirkuituak eta, zergatik ez, egon daitekeela merkatu bat”.

Beren ibilbidean, bederen, mugarria ikusten du Garazik ere ziklo berrietan: “Hasieran, espazioa ezagutzera emateko, mantendu behar genuen hileroko programazioaren erritmo bizi hori, nahiz eta gure osasunaren kalterako izan. Baina orain, gure bizitza artistikoei

Parasite kolektiboaren ‘Jadanik hilda’ ikuskizunaz gozatu ahal izan dute, besteak beste, aurtengo Zurrumbilo jaialdian. Garazi Lopez de Armentia da argazkian ageri dena.

arreta handiagoa jartzen hasi garenean, lagungarria zaigu programazioa ziklotan banatzea”. Hala, jaialdi horrez gain badute, esaterako, Bertako Fest (Baratzan egindako erresidentzia lanak eta ingurukoak erakusteko), baita beste zenbait ekimen ere. “Izan ere, espazio hau sortzeko gure beharrik handiena”, dio Garazik, “gure lana egiten jarraitu ahal izatea zen”.

Elikatu eta irentsi

Badu kantu bat Dut taldeak, *Zurrumbilo*, jaialdiaren izen bera duena. Une batean, honela diote hitzek: “Gaur elikatzen duzun zurrumbiloak bihar irentsiko zaitu”. Bistan da, kalterako bezalaxe, onerako ere balio duela aipu horrek. Izatez, askotan ez da argi ikusten norabidea, ezta biderik ba ote den ere. Honela dio Unaik: “Niretzat, hasieran, Baratzan lan egitea izan zen itsasontzi bat atzetik bultzatzea bezala. Ez genekien nora zihoan ere, eta gainera, bultza egin behar genuen. Orain, ordea, iruditzen zait ontzi gaineen goazela eta, gainera, gidatzen”.

Bide zurrumbilotsua eta luzea egin du ontziak, dagoen punturaino heltzeko. Lopez de Armentiatarren neba zaha-



rrak, esaterako, Euskal Herria utzi eta Ingalaterrara jo zuen gaztetan. Han hasi zen apurka antzerkia seriozki lantzen eta, ibilian-ibilian, hiru konpainiarekin Europan barrena ibiltzera heldu zen. Bitartean, Garazi dantza munduan sakon murgildu eta Bartzelonan ibili zen, besteak beste, Moreno Bernardi koreografoarekin lanean. Biek ala biek, hala ere, herrira itzultzeko gogoia zuten. Antzerki tailer ireki batean elkartu ziren Frantzian, eta hamar urtez bereizita egon ondoren, harremanaren lotura berreskuratu eta sendotzen hasi ziren neba-arreba arabarrak.

Bueltarako asmoa, berez, antzerki konpainia bat sortzea zen: Parasite kolektiboa (Hannah Frances Whelan eta David Alcantarekin batera). Ondoren, espazio bat behar zuten konpainiarentzat, eta premia horretatik sortu zen Baratz. Izena hautatzeko, bi arrazoi aipatzen dituzte: batetik, begien bistakoa, lur landua adierazten du, elikatzen duena; bestetik, Gasteizko Olabide ikastolaren hastapenetan sortu zen ohitura bat dago, jolas-tokiari “baratz” deitzekoa. “Horrexegatik”, dio Unaik, “gure entrenamenduetan egin behar den lehenengo gauza da maskara guztiak kentzea, ume batek bezala jolastu ahal izateko”.

Berebiziko gorabeherak igaro ondoren, 2013ko hondarretan zabaldu zuten Baratz, eta 2014 hasieran jarri zuten martxan. Hasi-hasieratik, aktibitatearen erdigunean egon da sormen laborategia: “Hori da gure proiektuaren bizkar-hezurra”, dio Garazik. Hain zuzen, beren sormen lana eguneroko entrenamendutik abiatzen dute, gorputzen elkarrenergaren ikerketatik eta esperimentazioetik. Horrez gain, Unaik azpimarratu du garrantzitsua dela konpainia batek izatea espazioaren ardura, eta ez erakundeek: “Gu kalean gaude, harreman zuzena dugu ikusleekin, eragileekin eta artistekin; horregatik, azkarrago egokitu behar berrietara”.



Euskal sortzaileen lanak bateratu eta ikusgarritasun handiagoa ematea izan da Zurrumbilo jaialdiaren helburuetako bat.

» **GARAZI LOPEZ DE ARMENTIA:**
“Espazio hau sortzeko gure beharrik handiena gure lana egiten jarraitu ahal izatea zen”

» **UNAI LOPEZ DE ARMENTIA:**
“Gu kalean gaude, harreman zuzena dugu ikusleekin, eragileekin eta artistekin; horregatik, azkarrago egokitu behar berrietara”

Amaierarik gabeko hasiera

Berez, ikuslegoa ohituta dago proiektu bukatuekin. “Guri, ordea, prozesu osoa ikusgarri egitea interesatzen zaigu: lurre mugitu, landu, landatu, ureztatu... eta jakina, uzta bildu. Hori ere gustatzen zaigu”. Baratzan, horretarako, badituzte bi areto (bata handia, Kuia; bestea txikia, Kuia txo). Sarrerako espazioari ere etekina ateratzen diote, Atari ekimena dela medio. Marina Suarez Ortiz de Zarate antzerkilaria da horren arduraduna. Hilero, ostiral batez, askotariko artisten proposamenak erakusten dituzte espazioaren arabarako formatuetan; gainera, hilabetez geratzen da bertan arte plastikoen erakusketa.



“Buruan bueltaka izaten duzu ideia, merezi duen edo ez, zertarako egiten dugun egiten duguna”, dio Marinak. “Baina uste dut garrantzitsua dela hemen gertatzen dena. Lana da, noski, baina baditu bi alde: bata gogorra, eta bestea, oso esker onekoa”. Izan ere, ikusten du denbora gutxian gauza asko egin direla, eta horiek eragina izan dutela inguruan: “Gauzak gertatzen dira, jendeak horri buruz hitz egiten du, ikusten da zerbait dagoela pil-pilean. Horrelako espazioak beharrezkoak dira; jendeak behar ditu”.

Bada adierazgarria, zentzu horretan, Baratzako sormen laborategian dabilen Gontzal Uribe antzezlearen iritzia: “Hemen aritzeak gauza piloa eman dit: hasteko, sormena ulertzeko modu berri bat, lan jarraian oinarrituta”. Bere esanetan, ikasleak hasten dira norbere gorputzean lur hartzen, arnasaren bidez kanpoa eta barrua harremantzen, eta apurka-apurka, egunerokoan erantzen ditugun geruzak erauzten. “Azkenean, gainetik kendu behar duzu zure pertsona soziala, eta beste leku batzuetan bilatzen hasi. Hori da abiapuntua. Gero, talde-entzumena landuz, bestelako komunikazioa sortzen da, oso sortzailea eta interesgarria”.

Bukatzeko, hain justu, galdetu diot ea zer landu nahi duen bere sormen ibilbidetan: “Niri interesatzen zaidana ez da hainbeste zer landu, baizik eta norekin lan egin. Uste dut norbanako moduan sor dezakeguna mugatua dela, baina beste batzuekin elkartzean, nolabait, mugarik gabeko konbinazioak sortzen direla. Zuk beti izango dituzu zure mugak, baina beste norbaitek apurtuko dizkizu, eta zeuk harenak. Elkar elikatze horretan sortzen dira gauzarik interesgarrienak. Putzu bat bezalakoa da, amaierarik ez duena”. ■

Naia del Castillo

Argazki bidezko eskultura



ESPASIO DOMESTIKOA - ETXeko LANAK (2001)

Argazkia koloretan. 76 x 100 cm



Xabier Gantzarain
@gantzarain

Euskal Herriko artista gehienei gertatu ohi zaien bezala, mundu zabaleko museo eta galerietan bueltaka ibiliagatik, bertan ez da oso ezaguna Naia del Castillo Aira (Bilbo, 1975eko uztailaren 17a). 2002an Okzitaniako Tolosan egiten den Le Printemps de Septembre festibalaren katalogoko azalerako bere lana hautatu zuten, *Bulego orduak*, eta *Le Monde* egunkarian atera zen gero. “Harrapatuta” sailekoa da, *Espazio domestikoa* - *Etxeko lanak* hau bezala.

Sail honetako lanetan, konstante bat da bere jardunean, zeinuak erakusten ditu artistak, baina gizakiak haiekin duen harremanean jarriz arreta, pertso-

nak dira protagonista, pertsonak daude harrapatuta, zu eta ni gaude egunero-kotasunak harrapatuta, bere biolentzia krudelak, bere zentzurik ezak, bere inertzia motelak, bere zoriontasun gezak.

Sail honetan etxeaz ari da galdezka artista batik bat, leku gozo bezain arrotz horretaz, babesten eta zanpatzen gaituen espazioaz. Artistaren hitzetan: “Funtzioak definitutako espazio pilaketa bat da funtsean espazio domestikoa. Jangela dago jateko, logela dago lotarako, sukaldea kozinatzeke... Espazio horien premisen arabera mugitzen gara etxean. Eta horrek sortzen dit galdera: zenbateraino gara espazio horren jabe,

eta zenbateraino da berak ezarritakoaren arabera jokatzera behartzen gaituen espazio hori gure jabe?”.

Nork ematen dio forma nori? Jendeak ematen dio forma etxeari, ala alderantziz da? Gorputzak ematen dio forma jantziari, ala alderantziz da? Geuk ematen diogu forma geure bizitzari, ala alderantziz da?

Orain arte “emakumearenak” izan diren espazio eta lanak hartu zituen artistak sail honetan oinarri; lan honen izenburua espainolez dago jatorrian: *Espacio doméstico* - *Labores*. Izenburuak berehala zaramatza erreferentzia mundu jakin batera. ■

Raimonen azken kontzertuak

HAINBESTE OIHU (ETA MURMURIOREN BAT)

Raimon musikari valentziarrak eszenatokiak utzi ditu, berrogeita hamar urtetik gorako ibilbide baten ondoren, maiatzean Bartzelonako Palau de la Música emandako hamabi kontzerturekin. Azken-aurrekoan egoteko aukera izan dugu, eta hauxe da bertan bizi izandakoaren kronika.



Aritz Galarra

@aritzgalarra

ARGAZKIA: CRISTINA CALDERER

Ez naiz inoren bizioekin sartuko ni, baina ARGIAko jendearenak benetan arraroak dira: Ramon Pelegrero Sanchis, Raimon izenez ezagunagoa (nota bene: azken silaban jarri azentua, inolaz ere ez katalan hiztunen belarrietara arrotz eta grazios egiten gaituen lehenengoan), erretiratu dela, eta ea joango nintzatekeen azken kontzertuetako batera (ea egunen batean Liberté, Egalité, Beyoncé edo Ariana Granderen kontzertu baten kronika eskatzen didaten). Guztira hamabi azken-kontzertu ziren, ondo, guztiak maiatzean egitekoak, ondo, baina sarrerak urte hasieratik zeuden agortuak, ez hain ondo. Maiatzaren 5ean berean egin nuen saiakera, eta, auskalo norbaitek sarrera itzuli zuelako (edo auskalo hil egin zelako norbait hori), baina sarrera bat, bakarra (oilategian, zer egingo zaio), lortu ahal izan nuen, maiatzaren 27rako. Azken-aurreko kontzerturako. Ez azkenerako, ezin izango diet nire bilobei Raimonen azken kontzertuan izan nintzela esan, baina kronika kobratu, barka, idatzi ahal izango dut behintzat. Eskerrik asko, beraz, sarrera itzuli zuen (edo auskalo hil egin zen) pertsona horri.

Ez da lehen aldia, noski, bereziki gustuko ez dudana norbaiten kontzertu ba-

tera joaten naizela. Tira, gustuko ez dudana, Raimon ez dut gehiegi jarraitu, egia esan, bere hit-ak ezagutzen ditut, nola ez, baina beti iruditu izan zait kantatu baino oihu egiten duen kantari bat (eta ni gehiago naiz murmurioaren aldekoa), beti iruditu izan zait kantatzen ez zekien kantari bat (eta horrek ez du derrigor ezer esan nahi, begira Fermin Muguruza). Ez da lehen aldia, beraz, baina oraingoan bereziki deseroso nago. Izango da agian kontzertua Palau de la Música ahalguztiduneari egingo delako, orain tristeki (akusatuen) lehen lerroan dagoen musika jauregia, guztiok ezagutzen dugun ustelkeria kasuagatik, Felix Millet lehendakari ohia (gaizkile) buru (kuriosoa egiten da, hala, eraikinaren barruan Millet abizena leku batean baino gehiagotan irakurtzea, nahiz jakin Luis birraitonari egiten diola erreferentzia). Eta deseroso nago, klase borroka edo, hobeki, gutxiagotasun konplexu bategatik, Palau de la Música klase altuko jendeak okupatzen baitu eskuarki, Upper Diagonal esaten zaien horietariki.

Baina izango da Raimon gorriegi zaie-lako, agian, gandorra uste baino apalxeago duen jendeak betetzen du gaur areto nagusia, guztiak ere jende zintzoa, ordenako jendea, gehienak ere konber-

gentziaren aldekoak. Kuriosoa, halaber, orain ustez horiek ere independentistak direlako, eta Raimonek inoiz aitortu izan duelako ez dela independentista, gaur egun Kataluniak bizi omen duen prozesu politikoaren gaineko zalantzak adierazteaz batera. Ea nor ausartzen den, ordea, Raimon bezalako ikono bati lezioak ematera, eta publikoak barkatu egiten dio bekatu hori, ahaztu behintzat (azken-aurreko kontzertuan ez, zorionez, baina azken-azkenean *in-inde-independència* oihukatu omen zuen jendeak; gustura ikusiko nuke zer aurpegi jarri zuen Raimon gizarajoak). Adibidez familia politikoak (BCN en Comú-koek ez, besteak, emaztearenak alegia): kasualitatez, maiatzaren 27rako sarrerak lortuta, abendutik hauek, oin-puntetan iragan dira Raimonen ez-independen-tismoa aipatu diedanean. Esteladaren bat bada aretoan, nahiz ez den iristen Millet abizena estaltzera.

Kontzertua hasi da halako batean, hamarrak justu paseak direnean (beranduegi niretzat, lehen loaldiaren atarian egoten bainaiz ordurako, eta Barsak Alavesi lehen gola sartu ondoren). Abesti niretzat (eta susmoa dut publikoaren zati handi batentzat) erabat ezezagunekin hasi ere, ezagunak nizkion abesti



zaharruno, oldarkor, builatsu horien-gandik urrun, *chanson* frantses-napolitarretik gertuago, sorpresa atsegina. Atorra gorria jantzirik, musikari akats-gabeez inguratua (bi gitarra, kontrabaxua, klarinetea), belarri gotorrontzat ez-tia diren melodiak interpretatzen ditu. Adibidez, XIV. mendeko testu batekin osatua den *Elogi dels diners*, publikoak bereziki txalotua, auskalo testuinguruak hartara bultzatuta. Kantuek aurrera egin ahala, deskubrimendu bat: Raimonek, kontxo, uste baino hobeki kantatzen du, kantatzean oilarra instituzionalizatu duen kantariak. Oilarrei muzin egin gabe (*peccata minuta*, eserlekua oilategian duguontzat), baina murmurioetik gertuago, oihutik baino. Dantza eta guzti egiten du abestiren batean. Tarteetan hitz gutxi, hori bai, despedida kontzertua izan arren. Araua hautsi du, luze gabe, *País Basc* abestia aurkezteko (gogoratu: “*Tots els colors del verd, Gora Euskadi criden fort*”), esplikatzeko, batetik, 1967an Euskal Herrira egindako bidaia batek zeharo hunkitu zuela, Ez Dok Amairu, Laboa, Lete, Iriondo, Artze anaiak, eta, bestetik, Bilboko jende bat etorri dela kontzertura (Hondarribikorik ez du aipatu). Publikoak beroen txalotu duen abestietako bat iruditu zait

» 35 abesti guztira. Minutu pare bateko esku-zartak. Eta gero etxera: eszenatoki gainean hainbeste oihu jaulki duenak ezin xumeago jaitsi du azkena, *bona nit i fins sempre* ia entzunezin bat erortzen utzi ondotik

(ez dakit zergatik, EAJ-PP akordioaren ondoren, katalan eta euskaldunon arteko harremanak ez baitaude inoizko momenturik gozoenean).

Gehienbat diktadura garaiko istorioak kantatuko zituela espero nuen. Beste aurreiritzi bat. Bat gehiago. Ez nekien hainbeste poeta katalan musikatu zituenik, Ausias Marchengadik hasi eta Salvador Espriurenganaino. Ez nekien Victor

Jararen *Te recuerdo Amanda* kantuaeren bertsio eder bat, *Et recorde Amanda*, egin zuenik. Ez nekien Raimonen valentziera euskaldun katalandartu baten belarrietan arazo berezirik gabe sartuko zenik. Bisetan jendea are beroago dago. *Jo vinc d'un silenci* (“*Qui perd els origens, perd identitat*”, txalo), *Diguem no* (“*No saltres no som d'eixe món*”, txalo, txalo), hasi bezala bukatzeko, konposatu zuen lehen kantuaerekin, *Al vent* (“*Els ulls al vent, al vent del món*”, txalo, txalo, txalo). 35 abesti guztira. Minutu pare bateko esku-zartak. Gero, zintzo, denak etxera. Raimon-zaleak dira guztiak ere, baina oroz gain katalanak.

Berrogeita hamar urtetik gorako musika ibilbide bat bukatzeko modu asko izango dira, suposatzen dut. Hauxe da Ramon Pelegero Sanchis, Raimon (oroiz azentuazioa) izenez ezagunagoa den musikariak aukeratu duena. 65ak aspaldi pasata, orain hamaika urte hain zuzen, erretiroa hartzeko deliberoa hartu du orain, 1940an Xativan jaiotako musikariak. Eszenatoki gainean hainbeste oihu (eta murmurioaren bat, ados) jaulki duenak ezin xumeago jaitsi du azkena, *bona nit i fins sempre*, gabon eta beti arte ia-ia entzunezin bat erortzen utzi ondotik. ■

KULTURKRITIKA


» LIBURUA

Ikastaldi baten kontaketa



Aritz Galarraga

@aritzgalarraga



Maitalea

MARGUERITE DURAS

Itzultzailea: Mikel Garmendia.
Ibaizabal, 1996

Oso maite dutun idazle batek esaten du benetan idaztea gustatuko litzaiokeen liburu bat dela ixa, eta zer egingo diozu, bada, ez bada ixa liburu hori irakurri berehala, are ixa liburu hori literatura unibertsalaren klasi-koetarik bada –eta puntu honetara iritsita, lotsaemangarria ere gerta daiteke literatu- ra unibertsalaren klasiko hori orain artean irakurri ez izana publikoki aitortzea–. Lagun artean gaude, ordea, eta lotsarako tarterik ez da –bide batez, ze gutxi hitz egiten den heda- bideetan gero eta gehiago, gero eta hobekia- go euskarara itzultzen den literatura uniber- tsalaz, ezta?–. Nire deskarguan esango dut gainera, pelikula bai, pelikula bere garaian ikusi nuela –interese intelektual hutsagatik, noski–. Ondorioa: a zer alde, pelikula eta liburuaren artean; liburuaren alde, bistan da.

Pelikula zentratzen baita nobelaren aspek- tu bat eta bakarrean: Vietnamen, 1930eko hamarkadako kolonialismo frantziarraren menpe, neskato zuri nerabe baten eta amo- rante txinatar helduago eta aberatsago baten arteko amodiozko harremanean, eta harre- man horrek askatzen duen erotismoan –ez ahaztu pelikula ikustearen interes intelektual hutsa–. Baike, eleberriarren gaietako bat da erotismo hori, zehatzago, desioa bera –“de- sioa da kontua, baieztatze-desioa, liberazio -desioa, bere osoan ezagutu nahi du bizia, porrota barne”–. Baina interes intelektual hutsagatik soilik justifika daiteke pelikula as- pektu horretara mugatu izana. Ezen, bestela, eleberria askoz ere aberatsagoa, askoz ere konplexuagoa, askoz eta betegarriagoa baita. Erotismoa, desioa, sexuan hastea, sexuan haste inozo bezain perbertitua. Harreman

hori, hamabost urteko neskaren eta merka- tari txinatar gaztearen artekoa, berandu gabe debeku sozial eta eskandalu publiko bihur- tzen dena. Jendearekiko harremana, orobat, adiskideekiko, nebekiko, batez ere amarekiko harremana: “Nire haurtzaroari buruzko kon- takizunetan (...) esango nuke gure amaren- gana sentitzen genuen maitasunaz aritu naizela, baina ez dakit harengana orobat sentitzen genuen gorrotoaz aritu naizen, edo- ta elkarrengana sentitzen genuen maitasunaz eta gorrotoaz”. Azken finean: “Ikastaldi baten kontaketa dugu, zalantzarik gabe, emakume izaten hasten den emakume batena”.

Rosa de Diegoren hitzaurretik, berriz: “*Maitalea*, 1984an Goncourt saria irabazi zuena, mugarri dugu Marguerite Durasen idazkuntzan, bai izan zuen arrakastagatik, baita bere literatur bilakabidean idazkera autobiografikoaren bidea ere abiatu zelako”. Oso maite dutun idazlearen literaturarekin batere zerikusirik ez duena –eta akaso ho- rregatik gustatuko litzaioke benetan idaztea, ezin idatzi izango duelako sekula–, baina ira- kurketa-maila bat baino gehiago eskaintzen duelako –ados, interes intelektual hutsagatik ere bai– irakurtzea merezi duena. ■



Marguerite Duras
idazle frantziarra
(Saigon, 1914-Paris, 1996).

» **TELEGRAMA**

70eko hamarkadako punkaren mito bizidunak dira **UK Subs** taldekoak. Ekainaren 16an Donostiako Antigua auzoan dagoen **Doka** aretoan ariko dira, Negra Calavera taldearekin batera **STOP D.R.I.** thrash talde mitikoa Gasteizen entzuteko aukera izango da ekainaren 16an **Jimmy Jazz** aretoan; eta ez pentsa bakarrik ariko direnik: **Anestesia** ere taula gainean izango da **STOP** Asteazkenak jai egun bihur daitezke norbaitek kontzertu bat antolatzen badu. **Ziburuko Maitenia** estatutan **Joseba Irazoki** ariko da ekainaren 21ean 20:00etan, ez galdu! **STOP**

» **KONTZERTUA**

Familia giroan



Montse Auzmendi

Schubert, Smetana, Ravel eta Ratxmaninov-en obrak

VLADIMIR ASHKENAZY
ETA VOVKA ASHKENAZY

Piano kontzertua.
Donostiako Kursaal Auditorioa.
Ekainaren 4a.

Vladimir Ashkenazy eta Vovka Ashkenazy
piano-jotzaile errusiarak.



Ez da hau familian sortutako piano bikote bakarra Errusian: Emil Guilels eta bere alaba Elena, edo Dimitri Baxkirov eta Elena Baxkirova adibide onak dira esateko talentua geneen bidez transmititzen dela (eta, ematen duenez, Errusian gehiago gertatzen da). Kasu honetan, Vladimir Ashkenazy piano jole eta orkestra zuzendari ospetsua Kursaal Auditorioan izan dugu bere seme Vovkarekin batera, eta emaitza eraginkorra izan zen, besterik gabe.

Pianista onak dira, dudarik gabe. Vladimirrek, ia-ia laurogei urterekin (uztailean egingo ditu), bere dohainei eusten die: soinu ederra, doitasuna, teknika segurua... Eta Vovkak badu fintasun berezi bat eta pultsazio neurtu eta biribila. Errezitaldi ona eman zuten, baina inolako magiarik gabea. Konplikatua izan zen haien arteko bolumenak orekatzea behin

eta berriro. Orokorrean, planoak geratu zen interpretazioa dinamikaren aldetik eta, laburbilduz, exekuzio bikaina entzun genuen baina, zoritxarrez, zurbila.

Franz Schuberten *Dibertimento hungariarra, op. 54 D. 818* ez da konpositorearen obra distiratsuenak, egia esan, baina lan egokia izan zen bi bakarlariak giroan sartzeko. Doi-doi entzun genuen, tinbrika polita erakutsiz. Jarraian, hain ezaguna den *Moldava ibaiak*, Smetanaren *Nire aberria* poema sinfonikoen sortakoak, ez zuen distira nahikoa izan. Ondo akoplatu ziren bi musikariak, soinu efektu politak lortu zituzten, baina, lehen esan bezala, dinamika planoak izan zen, eta adore pixka bat falta izan zitzaion interpretazioari.

Bigarren zatian *ñabardura* gehiago sumatu genituen. Maurice Ravelen *Rapsodia espainiarra*, bi pianotarako, graziaduna entzun genuen, erritmikoa, aurreko obretan baino naturaltasun handiagoarekin. Eta, dudarik gabe, beren onena Ratxmaninovekin atera zuten. Konpositore honen *1. Suitea, op. 5. Fantaisie-tableaux bi pianotarako* obran malgutasun eta freskotasun gehiago azaldu zituzten. Nahiz eta errezitalaren titulua *Ashkenazy-tarrak eta musika errusiarra* izan, hauxe izan zen jo zuten obra errusiar bakarra, eta honetan bai sentitu genuela familia honen talentua.

Bis bezala, Glinkaren pieza bat jo zuten, orkestrarako egina eta Glazunovok pianorako moldatua. Hau bai, primeran atera zen. ■

Sortzaile ahanziari omen

MARIJANE MINABERRI, EUSKAL IDAZLE AITZINDARIA GOGOAN

Ekainaren 11n, Aldudeko Sanoki aretoan.

Antolatzaileak:

Adur Euskara Elkartea eta Sareinak.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIA: ADUR EUSKARA ELKARTEA

Literatura eta feminismoa batzen dituen Sareinak taldeak urteak dira bere buruari esan ziola Marijane Minaberrri idazle eta sortzaile isilak omenaldia me-rezi zuela. Ez zen lehen omenaldia izan-go, baina Minaberririkiko ez gabela so-bera esker onekoak izan sentitzen zuen taldeak. Sareinak pentsakizun horietan zela hil zen otsailean Minaberrri.

Konbentzimendu handiagoz, Urepe-le, Banka eta Alduden 2012az geroztik lanean ari den Adur Euskara Elkartea-kin bat egin eta omenaldi xumea antola-tzen zuten, ekainaren 11n, Alduden.

Sanoki aretora hurbildu ziren 30en bat lagun, batzuk Minaberrri ederki eza-gutu zutenak. Gazteagoak ere baziren, bera baino haren obra oparoa eza-gu-tzen dutenak.

Bankar sortzailearen lanek harilkatu zuten ekitaldia. Nola ez, kantuz goxatu zen aretoa, Mikel Erramuzpe eta Amaia Gortairuren eskutik, Minaberririk lertxu-nari idatzitako poesia abestuz. Ondoren, Minaberrri beraren hitzak entzuteko au-dera izan genuen Kanaldude telebistak 2008an egindako elkarrizketaren bidez. Hor ageri da Gema Lasartek aurkezpe-



Ekitaldia Adur Euskara Elkarteko Karine Etxeberrik eta Sareinak taldeko Gema Lasartek aurkeztu zuten.

nean esan bezala, ahanzturak jan duen emakume handia, bere obraz galdetuta umorez eta apal erantzunez.

Josune Muñoz Sareinak taldeko ki-deak Bankako sortzailearen obra ho-beto eza-gutzeko parada eman zuen, entzule batzuentzat aski eza-guna, bes-te batzuentzat ez hain eza-guna. *Atalki* ezizenez sinatzen zuen idazlearen kali-tate handiko lanak azpimarratu zituen, haren obren sonoritatea, haurrentzat egindako lana, eta begirada zabala, an-tzezlanak, olerkiak, komikiak, ipuinak, landu baitzituen.

Berriz ere oholtzara bankarraren lana, oraingoan Gexan Alfaro lagun eta lankidearen aholketik. *Gorosti landarea* ipuina irakurri zuen hark.

Ondoren, Kanaldudek 20 minutuz go-rako erreportajea eskaini zuen. Pantxi-ka Maitia kazetariak Minaberrri eza-gu-tu zuten lau lagun (Xipri Arbelbide, Itxaro Borda, Aines Dufau eta Luzien Etxezaharreta) testigantzak bildu ditu lanean. Emazte idazleen bidea ireki due-netariko bat moduan aurkeztu ziguten Minaberrri, bere lana edonon sartzen zuena. Emakume apal deskribatu zuten,

lan isila egin zuena, are bere lana gu-txietsi zuen emaztea. Bankar alegera eta umoretsuak altxor bat utzi duela azpi-marratu zuten, gorde beharrekoa. Tes-tigantzen bideoak Minaberriren argazki ederra egiten laguntzen du, eta entzule batek esan zuen moduan, “ekitaldia bu-katuko da baina lekukotzen bideoa hor izango da betiko”.

Eta ekitaldia amaitzeko, Hego Eus-kal Herrian sortzailea eza-gutarazi zuen musikariak, Oskorri taldeko Natxo de Felipek, *Marijane kanta zan!* diskoko bi abesti kantatu zituen.


Antolatzaileek, agurtu baino lehen, hamar urte barrurako erronka jo zu-ten: ea hamarkada bat geroago Bankan baden kaleren bat edo eskolak baduen Marijane Minaberrri izena, sortzailearen lan handi eta isila betiko agerian izan dadin. ■

» Kanaldude Telebistan ikus daitezke Minaberriri egindako elkarrizketa eta ekitaldian estreinatutako testigantzen erreportajea. Ekitaldia bera aurki izango da www.kanaldude.tv-n.

Hitz gezidunak

Gaia: Loreak

ALVESGASPAR-CC BY



OLIEFERRIERES-CC BY SA

HZEII-CCBYSA

Sudokua


Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako
zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3ko
koadro bakoitzean errepikatu gabe.

	5	4		8		6		9
	6							
	2						8	7
				3	9		7	6
	9		5					3
							2	
6						4		
	4				3	5		2
			8		5			

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Eskutitz.
2. Madari.
3. Zakar, ezatsegin.
4. Letxuga.
5. Neu, nihaur.



Ebazpenak

[illegible]

5x5:

• unq

ar.

au.

	G	E	R	A	N	I	O	V	
	L	B	E	R	I	E	R	E	
P	V	K	A	S	Z	A	G	V	T
K	V	A	L	A	E	I	R	G	V
K	B	H	A	V	G	A	K	O	T
Z	H	A	R	G	A	R	D	E	I
L	B	E	T	I	L	U	N	I	D
	P	O	Z	A	R	E	N		
V	Z	P	I	B	I	D	E		
E	B			K		Y			

Xane Kreckelbergh. Militantziatik "erretretarako" urratsean



JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Ipar Euskal Herriko mugimendu feministako aurpegi ezaguna da Xane Kreckelbergh bithirindarra. Azken aldietan gutxiago ageri dena, ardurak uzteko urratsa eman duelako. Ez zaio erraza izan. Batetik, hainbeste aldatzeko duen jendarte honetan ezin duelako geldirik egon, eta bestetik, borroka feminista eramateko Ipar Euskal Herrian dagoen militante kopuru txikiagatik. Feminismoaz eta bere ibilbideaz hitz egiteko denbora eskaini digu.

"Feminismoak garai batean finkatu erronka guztiak hor ditugu oraino"



Jenofa Berhokoirigoin

@Jenofa_B

68ko Maiatzaren uzta

"68ko Maiatzaren biharamunean ideia berriak loratu ziren Ipar Euskal Herrian ere. Feminismoarekin hori gertatu zen. Baina maleruski, zabalduz joan den kontsumismo giroak printzipio anitz hil zituen. Funtsean, orain berriz pizten ari diren balore horiek berak. Badirudi zola hunki behar dugula berriz balore humanisten, elkartasunaren edota xumetasunaren garrantziaz ohartzeko".

Emazteek Diote elkartean zenituen ardurak utzi berri dituzu.

1973an militatzen hasi eta geroztik beti aritu naiz feminismoaren esparruan. Banekien ardurak utzi behar nituela, baina zaila zitzaidan, ikusirik gazterik ez zela segidarako. Oroit naiz kide gazte batek erran zidala hor izanen nintzeno ez zela ardura hartzerik izanen, beharrik ez zelako. Paf! elkartea Baionan, Brigada Ubela EHZ festibalean... Gazte batzuk feminismoari lotzen zirela ikusirik hitzetik ekintzara pasa nintzen. Lehendakaritza 2014an utzi nuen eta bestelako ardurak iaz. Deus ez egitea erabaki nuen, kide xume izatea.

Feminismoan gazte gutxi ikusteak kezkatzen zaitu. Ez da berdina Hego Euskal Herrian.

Nolaz da hain desberdina Hegoaldean? Errepresio gehiago bizi izan dutelako? Hiritarrak izanki errazago zaielako? Ez dakit. Ez dut uste alderdi politikoek feminismoari garrantzi handiagoa eman izanagatik denik. Izan hautetsi, sindikalista ala beste, emazteak hainbat arlotan

sartu ziren militantziaz. Hemen lege bat behar izan genuen gizonak tokia uztera behartzeko. Han matxistagoak direla? Ez, uste dut berdintsu direla han eta hemen.

Zuen belaunaldian ere ez zarete anitz.

Egia da. Egunak 24 ordu izanki, Emazteek Diote-ko batzuek beste gai batzuei eman zieten lehentasuna. Baina beti sostengatuz feminismoa. Kontsumo jendartearen izpiritua gure buruetara sartu zen eta militantzia ahuldu zen. Uste dut borroka irabazia zela pentsatu zutela gure adinekoek eta ondokoek. 40 eta 70 urte artekoetan huts handi bat bada. Gaur egun, 30 urtekoak edo hortik beherakoak dira borroka horri lotzen Ipar Euskal Herrian.

Zer ekartzen dizu militantziak?

Jendarteak aldatzeko behar hori badut, isilik egotea ez dut onartzen. Nire burua bortxatu behar izaten dut ekimenetan ez inplikatzeko. Nire buruari erraten diot "Xane, ez da zure adineko kontua, utzi besteei, ez joan lehen lerrora". Anitz elkartetan berdina gertatzen da: zaharrok



KEPA ETCHANDY

Integrata katolikoaren presentziaren aurkako borroka eraman beharra azpimarratzen du Kreckelberghek. Iazko martxoaren 8an Aillet apezpikuaren aurka egin mobilizazioan hartua da argazkia.

tokia hartzen dugu eta nekez uzten diegu ondorengoei. Lekua utzi behar zaie.

Paris eta hiri handiei lotu ohi dugu 68ko Maiatza. Ipar Euskal Herriko baserri mundaian ere sentitu zen?

Garaian Donapaleun ikasle nintzen. Ez genuen Paris edo hiri handietan bezala bizi ukan; ideiak hartu bai, baina pixka bat beranduago barneratu genituen. Futitzen ginen Paris, Bordele eta Bilbon gertatzen zenaz, guk gure bizia segitzen genuen, gure gogoeta, eztabaida eta aldarrikapenekin. Oso praktikoak ginen, mentalitateak aldatu nahi genituen, formakuntza edota eztabaiden bidez. Ez genuen hainbeste denbora pasatzen gure artean gogoetatzen. Garaian, haurtzaindegien beharra eta kontrazepzioaren eskuratzea ziren lehentasunetan.

Mentalitateen aldatzea zaila zitekeen.

Hemengo jendeek zerbait pentsatzen dute baina ez dute deus erraten! Nonbait ona da... Ez jakinki zer pentsatzen zuten, gurean segitzen genuen. Dena

dela, segur ginen arrazoi gurea. Gaur egun, badakigu entzunak izan ginelako zirela ideia batzuk aldatu. Oraino zaila da, eguneroko matxismoa hor dago beti. Bada zer egin. Adibidez, hauteskunderarako EH Bairen liburuxketan "feminismo" hitza ez da ageri. Zergatik ez? Ez dut ulertzen.

Zein dira gaur egungo erronka nagusiak?

Egoera hobetu da, baina sobera emeki. Uste dut garaian finkatu erronka guztiak hor ditugula, forma edo hein ezberdinetan badira ere. Bi aipatuko ditut. Batetik, dibortzioa irabazi da, baina diruduna izan behar da egin ahal izateko. Dibortziatu diren nire ingurukoak pobrezian dira. Bestetik, haurtzaindegirik ez da aski. Amatek eta aitatek ez balira hor, gazteek ez lukete duten bizia eramaten ahal. Eskaintza falta da. Gazteek ez dute deus aldarrikatzen, ez da normala. Erronka berria da integrata katolikoena. Hedatzen ari dira, arriskugarri da. Bestalde, sexualitateari dagokionez, gazteek ezberdin planteatzen

duzue gaia. Bilgune Feministakoak entzuten ditudalarik harritzen eta pozten naute. Ondarroako topaketetatik atera nintzen liluraturik.

Bilgune Feministakoak bidelagun ukan dituzu.

Bilgune Feministak morala igotzen dit. Garaian Egizan ala ondorengo Bilgune Feminista ez balira hor izan, ez dut uste atxikiko genuenik. Egiatzko galderak egiten dituzte, zinez galdera sakonak. Garaian homosexualitatea aipatzen genuen, baina gugandik kanpo gelditzen zen. Gaur egun gazte bagina, bizi eta amodio aukeratzat ukango gureko homosexualitatea.

Koordinazio feminista bat sortu da Herri Elkargoan, parekidetasuna eta feminismoa exijitzeko.

Emazteek Diote-tik abiatu zen ideia. Gauzak aldatuko dira herri elkargoan ere. Noiz? Ez dakit. Proposamen bat luzatua izan zaie, parekidetasunaren aldeko Europako Karta izenpetzea galdetua zaie. Ez dut ulertzen nolaz 2017an hain gibel izaten ahal garen. ■



Jon Maia guaya orain Jon Maya da (Zumayan izan ezik)

Beranduegi kalera atera da euskal herriarren iritzia jasotzera, eta emaitza argia izan da oso: jendearen kutuna orain Maya da, Maiaren ordeiz. Espainia-ko dantzaren Max Sarien emanaldian Gernikako bonbardaketaz akordatu eta euskara aldarrikatu zuen dantzari erreteriarrek, eta txoko bat bereganatu zuen abertzale zintzo guztion bihotzetan. Gainera, bertsolaria baino lirainagoa da eta gorago altxatzen ditu hanka biak. Hori bai, abizenaren grafia euskalduntzea baztertu du oraingoz: “Ni y grekoarekin pozik. Ikusi besterik ez dago Paya/Paia anaietan zein egiten ari den ibilbide oparoagoa”.

*“Lanpernaren negarra” emanaldia
prestatzen hasi da Maia
galdutako estatusa
berreskuratzeko.*



SAREAN ARRANTZATUA

**Sinboloen legea
aplikatuko diete Ordizia
eta Laukizko udalei**



“Eskerrik” koko



Euskal hipsterren artean modan jarri da “Ortuzar orrazkera”: alboetan luze eta buru gainean motz

“Mundu guztiak berdin mozten du ilea gaur egun: alboetan motz eta buru gainean luze. Orrazkera hori oso *mainstream* bihurtu da eta nik beste zer-bait nahi nuen”, azaldu dio Yeray Josu Etxaundigoitia gazte bilbotarrak bere amari, etxean agertu denean kopetatik lepondoraino afeitatuta eta alboetan ilea moketa bat bezala orraztuta. Geroz eta gazte gehiago ari dira “Ortuzar orrazkera”-ra pasatzen, Euskal Herriko ile-apaintzaileek ikastaro bereziak

egin behar izan dituzte EAJko buruaren estiloa imitatzeko. “Hainbeste zabaldu da moda hau, aldaera bitxiak ere sortu direla”, esplikatu digute Arrankudiagako Kontxi Stylist-eko langileek: “Aurrekoan mutil bat etorri zitzaigun Ortuzarren eta Rappelaren arteko orrazkera eskatuz. Eta egin egin behar, zer erremedio”. Adituen arabera hau hasi besterik ez da egin: Anasagastiren gortina-estiloa izan daiteke udazken hone-tako tendentzia.



*Moda berriaren arrakasta ikusita,
orraz bereziak merkaturatu dituzte.*



**INDARTU
DEZAGUN
INDARTZEN
GAITUENA**

Egin ARGIAkoa!

Eman eta jaso
nahi duzun neurrian

argia.eus/eginargiakoa

STM

San Telmo Museoa

Erakusketa:

Telefonica

FUNDACIÓN



HITCHCOCK

Hitchcock, suspensetik harago

2017-6-16 // 2017-10-1

Erakusketa

San Telmo Museoa

Zuloaga Plaza 1, 20003 Donostia

#STMhitchcock

www.santelmomuseoa.eus


donostia
kultura


DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Donostia
GOBIERNO DE LA
COMUNIDAD DE LA
VASCIA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Departamentuak: Kulturak,
Turismoa, Jantzeraketa eta Ospitaleraketa



 ORAIN
KULTURA

 eitb

 kutxa

 EL DIARIO VASCO